



"Aterpera etortzeko baldintza bakarra asilo eskatzailea izatea da"

Ane Amenabarro Auzmendi
Gurutze Gorriko kidea / 2-3



Dorraon azienda basoan sartzeko baimena jaso eta Gazteluko borda berritu dute / 5

Sakanan bizi eta lan egin nahi dutenei Lanbide Heziketa ikas dezatela gomendatu diete / 11

Urdiaingo baserrietatik igerilekuetarainoko bidexka egiten hasi da udala / 9

Emaille izateko deialdiarekin batera, Etxarri Aranazko hamasei odol emaillek aitortza jaso dute / 6

Olaztiko Rallysprintean 42 talde lehiatuko dira. Asier Juanezek iazko arantza kendu nahi du / 17

Eukeni Goikoetxea, Bargagaingo Igoerako irabazlea eta Nafarroako Trail Running txapelduna / 18

Koldo Arnanz arte tailerrak 30 urte bete ditu eta ospatzeko erakusketa "berezia" mustu du / 22-23



Ane Berastegi eta Siets Goikoetxea, Pistako Espainiako txapeldunak taldekako jazarpenean / 20

"Harrera eman eta haien autonomia sustatzen dugu"

ANE AMENABARRO AUZMENDI GURUTZE GORRIKO KIDEA

Altsasuko Otadiako Kristo Deuna aterpean lanean dabil, gobernuz kanpoko erakundearen Errefuxiatuen Programan

Iñaki Rubio Mendoza ALTSASU

Otadiako Kristo Deuna gazteen-dako aterpea 2021ean itxi zuen Nafarroako Gobernuak, eta asmo humanitarioarekin zabaldu zuen berriz ere joan zen urtean, Ukrainako gerratik ihesi zihoazen errefuxiatuak hartu asmoz. Egun, hamaika nazionalitate eta kultura hartzen ditu, eta beren herrialdeak halabeharrez uztera bulkatutako pertsonak aterpetzen dituen zentro prestatuenetarikoa da Nafarroan. Gurutze Gorriak kudeatzen du aterpea, Nafarroako Gobernuaren zesio baten bidez, nahiz eta Espainiako Gobernuak Inklusio, Gizarte Segurantzza eta Migrazioen Ministerioak programa hori finantzatzen duen. Ane Amenabarro Auzmendi gizarte langilea da, eta zentroa kudeatzeaz aparte, bertatik bertara ezagutzen ditu bertakoen istorio eta bizipenak.

Jatorri askotariko pertsonak aterpetzen dituzue Otadiako Kristo Deuna aterpean. Zein da horien soslai?

Nazionalitateari dagokionez, hegoamerikarrak dira nagusi; kolonbiarrak, venezuelarrak eta

perutarrek. Ukrainarrak ere asko dira, baita siriarrak eta marokoarrak ere. Bestalde, adin tarte oso zabala da, bi urtetik hasita 84 urtera artekoa. Noski, erabiltzaile zaharragoak eta gazteagoak ere izan ditugu. Hori bai, ez dago "inoren ardurapean ez dagoen adingaberik"; familiak dira gehienak, eta bakarrik etorritako helduak ere bai. Ukrainarren kasuan, emakumeak eta umeak gailentzen dira, gizonak beren herrialdean geratu baitira, gudan. Dena den, gizonak ere badatoz gatazka armatueta murgildutako herrialdeetatik, desgaitasunen bat dutenak edota adinekoak, esaterako.

Halere, gerratik ihesi datozenak, ukrainarrak eta siriarrak batez ere, ez dira gehiengoak. Errefuxiatu askok errepresio handia pairatu dute beren sexu orientazio edota genero identitatearen harira, baita arrazoi politikoengatik ere, beren herrialdeetatik halabeharrez ihes eginez. Aterpean, hegoamerikarrak dira horiek, oro har.

Astuna da gainean daramaten motxila?

Bai, oso pisutsua da, egia esan. Garrantzitsua da azpimarratzea pertsona horien migrazio prozesua ez dela gure artean ikusten dugunaren antzekoa; ez dira borondatez etorri, beren herrialdea atzean uztea beste biderik izan ez dutelako baizik. Errefuxiatuak dira. Oso azkar alde egin behar izan dute beren etxeetatik, eta prozesu migratzaile luze bat pasa ondoren heldu dira, kasu honetan Altsasura. Behin aterpera iritsi eta apur bat erlaxatzen direnean ikusten da gainean daramaten zama. Maiz, haiek ere ez dakite zenbaterainokoa den gordeta dutena; hemen aterratzen dira sentimendu guzti horiek.

Nola bizi duzu zuk hori?

Bi sentimendu dira nagusi, bertan lanean gabiltzan gizarte langileondako. Batetik, frustrazioa handia da oso. Pertsona bakoitzaren kasuak bertatik bertara ezagutzen dituzu, horien egunerokoa... badakizu beren bizitza nolakoa den eta zer behar duten, baina ia beti ezinezkoa izaten da beharrian horiei erantzutea. Ez dago baliabiderik, eta ezin dugu



Ane Amenabarro Auzmendi, Gurutze Gorriko kidea. IÑAKI RUBIO MENDOZA

"ASETASUNAREN ETA FRUSTRAZIOAREN ARTEKO ZERBAIT DA BERTAN LAN EGITEA"

"AHALIK ETA ZERBITZU ESKAINTZA ZABALENA IZATEN SAIATZEN GARA"



EGOKI
Ventanas PVC Leihoak
www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea • Olazti

EROSOTASUNERAKO PENTSATUAK

Diseinu soileko lehio berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 • Iruñea



hainbeste inplikatu haiekin. Asetasuna eta poztasuna dira txanponaren beste aldea. Konpainia egin, lagundu... oso ondo erantzuten dute eta pozgarria da hori ere. Asetasunaren eta frustrazioaren arteko zerbait da. **Zein da aterpean egiten duzen lanaren helburua?**

Babes bila datozen pertsonen harrera eman eta esku-hartzeko pertsonalizatu bat ematea da lehengo helburu nagusia, erabiltzaileen beharrei erantzunez, ahal den heinean. Behin finkatuta, erabiltzaileen autonomia sustatzea da azken xedea, aterpea utzi eta beren bizitza berreraikitzeke.

Baduzue zerbitzu psikologikorik?

Bai. Harrera programaren baitan zerbitzu psikologikoa sartzen da, eta edonori eskaintzen zaio, laguntza indibidualizatua emanez. Gurutze Gorriko psikologoak dira. Zama astuna da, eta nahi-taezkoa da profesional horiekin harremana edukitzea. Psikologoak dira sarritan erabiltzaileen gan beharrak identifikatzen dituztenak, eta horien laguntzaz egiten dira deribazioak, kasuan-kasuan beharrezkoa den zerbitzura bideratuz.

Zer zerbitzu eskaintzen dizkie aterpeak erabiltzaileei?

Laguntza psikologikoa, juridikoa, enplegu orientazioa eta akonpainamendua dira, oro har. Gaztelania klaseak ere ematen dituzte, izan ere, erabiltzaile askok ez dute ulertzen edota hitz egiten, baita haurrendako eskola erre-ortzua ere. Halaber, badira boluntarioek aurrera eramaten dituzten zerbitzuak, esaterako, aisialdiari loturikoak; yoga klaseak ematen dituen boluntario bat daukagu taldean. Ahalik eta zerbitzu eskaintza zabalena izaten saiatzen gara.

Nortzuk osatzen duzue lan-taldea?

Aterpean egunero arreta zuzena ematen dugun langileak zazpi gara, Gurutze Gorrikoak denak ala denak. Psikologoa eta abokatu asteen behin edo bitan etor-tzen dira, eta gainerakoa boluntarioen laguntzaz egiten dugu. **Zein da, konkretuki, Gurutze Gorriaren lana bertan?**

Gure eginbeharra zentroaren kudeaketa da. Oso polibalentea da gure lana: era guztietako gestioak egin, aterpea zutik mantendu, eskaintzen diren zerbitzu guztiak sustatu (barne zein kanpo zerbitzuak). Egun egiten den gehiena babes programaren baitan sartzen da.



Otadiako Kristo Deuna aterpea. GURUTZE GORRIA

Nola kudeatzen duzue egunerokoa?

Saiatzen gara pixkanaka erabiltzaileei errutina bat jartzen. Autonomia lortzeko oso garrantzitsua da egunerokotasunean ohitura batzuk hartzen joatea. Beren egoera eta bizitzak normalizatzen saiatzen gara nolabait. Esaterako, goizean umeak eskolara eramanez, prestakuntza ikastaro batera joan, lan bila hasi... **Nola moldatzen zarete elkar komunikatzeko?**

Egun, gehienek dakite gaztelaniaz, baina badira hizkuntza hori ez dakitenak, are gutxiago euskara. Batzuek ingelesez dakite, eta hala moduz moldatzen gara, baina, bestela, hiru modutan komunikatzen gara nagusiki. Lehenik, boluntario interpreteak ditugu, afera garrantzitsuenetarako. Ukrainarrak eta marokorrak dira bereziki zerbitzu horren beharra dutenak, eta hizkuntza horiek dakizkiten itzultzaileak etortzen dira.

Ondoren, badugu telefono bidezko asistentzia moduko bat; profesionalekin harremanetan jartzen gaitu itzulpenarekin laguntzeko, eta, azkenik, gehien-gehienez erabiltzen dugun erreminta Google Translate mugikor-rrerako aplikazioa da. Egunerokoan ematen diren elkarrizketak itzultzeko oso erabilgarria da.

"ERABILTZAILEEKIN BATZARRAK EGITEN DITUGU, BEREN OHITURAK BESTEEKIN PARTEKATUZ"

Nola bideratzen dituzue erabiltzaileen ohitura ezberdinak?

Kontsentsu bidez adostasunetara heltzen gara. Erabiltzaile guztiekin batzarrak egiten ditugu, eta beren ohiturak, ospakizunak eta abar partekatzen dituzte, eta saiatzen gara horiek komunetan jartzen. Hala, beren kideen bizimodua nolakoa den ikasten dute, elkar ezagutuz bide batez. Orain ramadana ospatzen ari dira hainbat erabiltzaile, eta batzar horien bitartez kontatu digute zer janari jaten duten, zer ordutan... langileok ere moldatzen gara beren ohituretara, baina gureak ahaztu gabe betiere, hala, gure ohiturak ere erakusten dizkiegu, pertsona horien gizarteratze eta inklusioa errazte aldera.

Hainbat talde egiten ditugu, gaiaren araberrakoak, janari-az hitz egiteko, adibidez. Komunak diren proposamenak egiten dizkigute, hau da, orokorrak, menu pertsonalizaturik gabe. Esaterako, zopa zein eratan prestatua gustatzen zaien edo arroz kantitate gehiago jar diezaiaketen...

Janaria kudeatzerakoan, sukaldariekin ere hitz egiten dugu. Musulmanek, esaterako, ez dute txerririk jaten, beraz eguneko menuan animalia hori egon behar balitz pertsona horiek beste zerbait izanen lukete jateko. Gainerako haragiekin ez dago arazorik, Halal haragia baita, Islam-ak baimendutako haragia hain zuzen ere.

Nolakoa da espazio banaketa aterpean?

Xumea da, baina ongi moldatzen gara. Beheko solairuan, aurreal-

dean, sukaldea eta jangela daude. Atzealdean, Zelandi kiroldegia-ri begira, garbigailu gela bat, ikasgelak eta erabilerakomune-ko hainbat gela. Kanpoaldean, Sakana Lanbide Heziketa ikastetxearekin partekatzen duten berdegunea dago. Bigarren eta hirugarrenean erabiltzaileen logelak eta egongela handi bat daude. Hori bai, gelek lau pertsonarendako tokia dute asko jota, eta familia batzuek bereizita egin behar izaten dute lo. Pena da baina ez dago tokirik.

Nolakoa da bizikidetzat aterpean?

Konplikatu da, baina pertsona horien larruan jarritz gero gauza asko ulertzen ditugu. Beren herrialde-etik ihes egin, leku berri batera iritsi, bertan aterpe bat aurkitu eta gela bakar batera mugatzen da beren espazioa. Gogorra da. Normala da momentu-ren batean gatazka sortzea. Bakoitzak gainean dakarren motxila astun hori kudeatzea ere zaila da, are gehiago beste hamarnaka pertsonarekin espazio komunak partekatu behar dituztenean.

Hala ere, polita da. Azken finean, badakite arrazoi berdintsuengatik daudela denak han, eta ondo ulertzen dute elkar. Noizean behin gatazkak badaude ere, familia txiki bat sortzen da. Bestalde, gurekiko harremana oso ona da. Hainbat ekintzaren bidez erlazio

"ASILOA LORTZEN EZ BADUTE ATERPETIK JOATERA BEHARTURIK DAUDE"

polita sortu dugu gainera. Herrian, tira, azkenean edozein pertsonak izan ditzakeen harremanak dituzte, batzuekin ondo eta beste batzuekin ez hainbeste. **Nola kudeatzen duzue pertsona horien etorrera?**

Aterpera etortzeko baldintza bakarra asilo egoera batean egotea da, hau da, asiloa izatea edota eskatuta izatea. Espainiar estatura iristen direnean, poliziarenera edo Gurutze Gorri-joaten dira lehenik, han asiloa eskatuta dutela esan, eta gertatzeko leku bat eskatzen dute. Ondoren, ostatueta, lagun-entxean edo denbora tarte horretarako zentro batera joaten dira eta, azkenik, Otadiako Kristo Deuna bezalako aterpeetara bideratzen dituzte. Guk geuk kudeatzen dugu harrera hori.

Nolakoa da harrera prozesua?

Oso garrantzitsua da pertsona horiendako, lekuaren lehen inpresioa izaten baitute harreran. Ahalik eta hoberean egiten saiatzen gara, beraien ongizatea lehenetsiz, eta, jarraian, martxan jartzen gara tramiteekin; errolda, umeen eskolaratzea, osasun zentroan eta enplegu zerbitzuan izena eman... egonkortasun bat bilatze aldera. **Bizitza autonomia lortzen dute azkenean?**

Autonomia gehienek lortzen dute. Beraien bizitzako kapitulu bat besterik ez da, zati txiki bat, baina denek lortzen dute modu batera edo bestera independentzia hori. **Aterpea utzi eta gero, beren herrialdeetara itzultzen al dira?**

Hainbat arrazoiengatik joan daitezke aterpetik. Batzuek lana aurkitzen dute herrian edo inguruan, eta zentroa uzten dute, baina ez dira beren herrialdeetara itzultzen. Ukrainarren kasuan, ordea, gehienak etxera itzuli dira. Bestetik, gerta daiteke asiloaren esperoan egotea eta, azkenean, ukatzea. Kasu horietan aterpea utzi beharko lukete, bertan egoteko baldintza baita hori. Oso triste da.

Etorkizunean, estalpean lanean jarraitzeko oztoporik ba al duzue?

Jarraituko dugu edo ez, arrazoiak asko izan daitezke bi kasuetan. Gurutze Gorriak kudeatzen du zentroa egun, baina Nafarroako Gobernuarena da; gerta daiteke Gobernuak esatea aterpea beste zerbaitetarako erabili nahi duela, edo asilo eskatzaile-rik ez egotea... ez dakit. Beharritana dagoen lekuan egon da Gurutze Gorria.



ASTEKOA

JAVIER CASTEIG BARANDIARAN

Euskararen normalizazioa EITBn

EITB erakundea Eusko Jaurilaritzak sortu zuen 1982an, euskara normalizatzeko helburuarekin. Erakundean, irratiekin batera sortu zen lehenengo telebista katea ETB1 izan zen, eta lau urte geroago ETB 2. Ondoren beste kateak etorri ziren.

Gizartean, hizkuntzekin gertatu bezala, bi kate nagusien arteko oreka zaila izan da. Hasieran ETB1ek saio gogoangarri batzuei, kirolei eta marrazki bizidunei esker eusten zion, baina ETB2 poliki-poliki nagusitzen hasi zen, gaur egungo nagusitasunera iritsi arte.

Halako nagusitasunak hizkuntzen trataera baldintzatzen du, eta, honela, ETB2rako bakarrik sortutako saioa bada, grabazioa soilik gaztelaniaz egiten da, elkarriketatuaren ama hizkuntzari jaramonik egin gabe.

Honen adibidea, duela gutxi, Lizarragabengoan grabatutako *Historias a bocados* telebista saioa. Saioaren aurkezlea eta elkarriketatuak euskaldunak izan arren, saioa bere osotasunean gaztelaniaz grabatu zen, ETB2rako izateagatik.

Nik, erdaldun elebakarra jaio nintzela, normaltasun osoz onartzen ditut gaztelaniaz egindako telebista saioak eta oso gustura ikusi nuen aipatutakoa, baina bereziki mingarria egiten zait euskararen normalizatzeko helburuarekin sortutako erakundean euskaldunak gaztelaniaz egitera behartzea. Gainera, saioan konatatutako bizipenak eta gorabeherak, jatorrizko bertsioan, hau da, euskaraz, jasotzeko aukera lapurtu zidatela sentitzen dut.

Benetan helburua hizkuntzaren normalizazioa baldin bada, arau nagusitzat, ez al lukete jarri beharko bakoitzaren ama hizkuntza errespetatzea, edozein dela emititu beharreko telebista katea? Hau batzuetan egiten da, eta erraza da emititu baino lehenago grabatutako saioetan. Gutxieneko bat da.

HARA ZER DIEN

Berdintasun ordenantzak berdintasunerako politikak indartzeko tresna gisa

SAKANAKO ETA ALTSASUKO BERDINTASUN ZERBITZUAK

Bi hamarkada baino gehiago igaro dira Hego Euskal Herriko udalerrriak emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak lantzen hasi zirela, emakumeek bizitzako arlo guztietan jasaten duten menderakuntza egoera iraultzeko eta euren bizi baldintzak hobetzeko helburuarekin.

Urte horietan, berdintasunerako zerbitzuek herritarrei zuzendutako jarduerak antolatu dituzte, besteak beste, herritarrak genero berdintasunaren beharraz sentsibilizatzeko eta emakumeak ahaldundutako.

Baina erakunde barrura begirako lana ere funtsezkoa da jendarte berdinzaleagoa eraikitzeko.

Izan ere, genero zeharlerrotasunaren estrategia garatuz berdintasunaz udal edo erakunde bateko arlo guztiak arduratzen dira, sail guztietatik sustatzen diren politika publikoetan genero ikuspegia txertatuz. Langintza hau arrakastatsua izateko beharrezkoak dira, besteak beste, konpromiso politiko sendoa, langileen sentsibilizazioa eta inplikazioa, baliabideak jartzea, eta lankidetzarako kultura lantzea.

Zentzu honetan, estrategia hau garatzeko tresna indartsuak dira emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako ordenantzak. Ordenantzek, lege maila altuagoa duten neurrian, aldagetak eragin behar dituzte, eta aldageta

horiei aurre egiteko oinarri sendo samarra behar da, ordenantza baliorik gabeko arau multzo bat bilakatu ez dadin. Nafarroan hainbat dira berdintasunerako ordenantzak indarrean dituzten udalerrriak: Antsoain, Iruñea, Barañain... eta laster Altsasuk ere izanen du berea.

Altsasuko Udalak ibilbide luzea egin du emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioa bere jarduera osoan txertatzen. Urte hauetan egindako ibilbidea sendotzeko eta aurrerapauso bat gehiago emateko, apirilaren amaieran aurreikusten da Udalbatzak Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Altsasuko Udalaren ordenantza onartzea. Horrek udal jarduera osoan genero ikuspegia sistematikoki txertatzea ahalbidetuko du, azken helburua emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra lortzea baita.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

GUTUNA

Erremediorik bada?

TELMO ZULAIKA PEREZ

Berriak ikusi eta notizia txarrak besterik ez; geroz eta ohikoagoa zaigu. Gauzak ondo doazela sinistu genezake edo egunerokotasuna beste begi batzuek ikusi, baina, errealitateak hor dirau. Errealitate krudela non etxegabetze, lan istripu edota bizitzaren garestitze

etengabeek eguneroko gi diren. Askok galdetzen diote euren buruari ea egoera hobetu daitekeen. Hobetu baino, akaso egokiagoa litzateke egoeraren gainditzeaz galdetzea. Hau da, egungo miseria kudeatu edo miseria gainditu nahi dugu? Nahiz eta erantzunak begi bistakoa dirudien errealitateak ez du berdina iradokitzen.

Batetik, gaur egungo egoerari buelta emateko gai izan ez diren sozialdemokrazia eta historian egon omen den

"gobernu progresistena". Gutxi ez eta burgesiaren irabaziak handitu ditu langile klasearen miseria puztu duen bitartean; begi bistakoa gasolina zein elikagaien kasuetan, adibidez. Egunak pasa eta langileon egoera okertzen doa alderdi parlamentarioak ilusioa saldu eta promesa faltsuak egiten dizkiguten bitartean.

Bestetik, miseriaren gaindipenerako sozialismoaren beharra mahaigaineratzen dutenak. Utopia izatetik urrun,

proposamen gaurkotua da, borroka eta esperientzia iraultzaileen eskutik lortu baititu langile klaseak bizi kalitate eta askatasun kuotarik handienak eta lortuko ere.

Bada egoera gainditzeko ezintasuna erakutsi eta miseria kudeatzera mugatzen dena. Bada egoera gainditzeko, ongizate orokorra bermatzeko potentzia duena eta ez dator egungo miseria sortu zein kudeatzen dutenen eskutik,

Estatu Sozialistaren gauzapenetik baino.

Hartara, Kontseilu Sozialistek Maiatzaren Lehenean Iruñean mobilizatza deitu dute "Burgesiaren eta bere alderdien aurrean, alternatiba sozialista eraiki" lemapean. Fartsa eta ezintasunaren aurrean alternatiba sozialistaren beharra azpimarratzea ez delako posizio nostalgiko baten apologia itsua, irtenbide errealearen irudikapen gaurkotua baizik.

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maidier Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675

GK diseinu zerbitzua:
Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Felix Altzela Irriarte

Kolaboratzailea:
Iñaki Rubio Mendoza

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK



BAZKIDEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



Zaharberitutako Gazteluko borda. DORRAOKO KONTZEJUA

Kontzejuak Gazteluko borda konpondu du

Bi erabilera ditu, basoan dagoen aziendaren aterpe eta herritarrendako aisialdi gune gisa

DORRAO

Herriaren ekialdean Gazteluko borda dago, azienda babesteko jaso zena. Baina dorrobarren aisialdirako tokia ere bihurtu zen. Hala ere, hainbat arrazoi-rengatik bordaren erabilerak behera egin zuen, eta nahikoa hondatuta zegoela ikusita, kontzejuak konpontzea erabaki zuen.

Lehenik eta behin, azienda basoan sartzeko eskaera egin zion Nafarroako Gobernuari. Izan ere, Dorraon hori egitea debekatu zuen foru administrazioak, azienda eta baso kudeaketa bateragarriak ez zirelako. Baso aprobetxamendu baten ondoren, pagoak gazte zirelako jarri zen debekua. "Zuhaitzak handitu ziren, herrian lehen sektorean gero eta jende gehiago ari da... Ongi argudiatutako eskaera aurkeztu genion Nafarroako Gobernuari. Eta joan zen urtean azienda basoan sartzeko

baimena eman zigun", azaldu du Idoia Resano Igoa kontzejuburuak. "Eta, egia esan, primeran etorri zen, lehorteagatik Andian belarrik ez zegoelako. Azienda basoan mendian baino hobe egon zen", gaineratu du Resanok.

Aldi berean, Dorraoko Kontzejuak nekazaritza azpiegiturak hobetzeko dirulaguntza deialdira borda berritzeko eskaera aurkeztu zuen. Baita jaso ere. "Borda bitan banatu dugu, alde bat azienda babesteko da eta, bestea, jendeak erabil dezan. Gainera, errekatik ura hartu dugu, azien-dak zer edan izan dezan eta jendeak platerak-eta garbitzeko aukera izateko", azaldu du kontzejuko presidentek. Lanak azaroan despeditu zituen erakuntza enpresak. 212,23 metro karratuko azalera duen borda berritzen kontzejuak ia 100.000 euro gastatu ditu eta haren %60 laguntzaren bidez ordaindu du.

Erreka kaleko zubia itxita

Uharte Arakilgo Erdi Aroko zubia urpean gelditu zen 2021eko abenduko uholde hartan. Ur emariak zubiaren petrila mugitu zituen, haren bi ertzetan dauden harriak. Zubia zaharberritzeko lanak astelehenean hasi ziren. Pertriletako harriak kendu eta bere tokian jarriko dituzte berriro. Lanak irautean duten bitartean ezin da zubia erabili.



Kontzejuak dirua aurrezten segitzen du

Itxurako kopurua lortzen duenean inbertsioaren bat egiteko asmoa du Urritzolako Kontzejuak. Herrian pozez hartu dute biztanleria handituko dela. Industrialdearen eraginez trafikoa handitu da eta kezka sortu du

URRITZOLA

Urritzolako Kontzejuak aurten 9.365,63 euroko diru sarrerak (2022an baino 916,07 euro gutxia-go) izanen ditu eta 2.330 euroko gastuak (2022an baino 93,96 euro gehiago). Diru sarrerak Nafarroako Gobernuak eta Arakilgo Udalak emandako diruekin lortzen ditu kontzejuak, aurten 5.294,32 euro. Pandemiagatik aurreko urteetan ez dute ez festarik ez festa txikirik egin eta horrek ere kontzejuari aurrezten lagundu dio. Nahikoa diru dutenean inbertsioaren batekin dute, Fermin Mariñelarena Iraizoz kontzejukoburuak azaldu duenez.

Udalak urtero kontratatzen dituen langileei hainbat egiteko jartzen dizkie kontzejuak: eliza ondoko landare hesia txukundu, han-hemen sortzen diren belarrak kendu eta beste. Farolak margo-tu zituzten 2022an. Bestetik, Mariñelarenak azaldu du herrian pozik daudela bi etxe eraikiko direlako eta bi familia joanen



Urritzolako sarrera.

direlako bizitzera. "17 biztanleko herri batean populazioaren hazkundearen ehunekoa handia da. Gainera, haurrak dituzten familiak dira. Herrian azkeneko haurra, beharbada, duela 28 urte izan zen", azaldu du.

Trafikoa handitu da

Etxarrengo industrialdea zabal-tzeak eragina izan du Urritzolan: ibilgailuen joan-etorria handitu egin da. Mariñelarenak: "egunero pasatzen dira batzuk, aldikakoak dira besteak. Ez dakizu zergatik sartu diren. Etxarrengo errotonda hartu eta aurrera egiteagatik, Harivenasa lantegia ikusi nahi dutelako..." Kontzejuko presidentek gaztigatu duenez, "gidari batzuk herritik begiratu gabe pasatzen dira, ziztu bizian. Herrian bertan ez dago trafiko handirik, baina zerbait gerta liteke". Txirrindulariei ere ohartarazpena egin die Mariñelarenak: "Urritzolatik Etxarrenera joateko bidean aldapa behera 90 graduko bihurtunean bukatzen da eta kurba itxita hartzeko ohitura dute txirrindulariek. Bidean trafikoa handitu denez, txirrindulari batek baino gehiagok zuzen joan behar izan du sorora, parez pare zetorren autoa ez jotzeko".

MUSIKAZ
BLAI

Gorka
URBIZU
RUIZ

Musikaria / LEKUNBERRI

Ezet
asmatu
zeintzuk diren
bere kantu
kuttunak
Piztu irratia!

Apirilak 21, ostirala,
10:30etatik aurrera

Beleixe irratian

107.3 FM

beleixe

Sakanako



pun tuak



guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

ALTSASU IORTIA KULTUR GUNEA	LAKUNTZA OGIBERRI OKINDEGIA
ARBIZU LONBRENDENDA	OLAZTI CLINKER
BAKAIKU DENDA	UHARTE ARAKIL UDALETXEA
ETXARRI ARANATZ UDALETXKO ESTALOPEAN	URDIAIN UDALETXEA
IRURTZUN PIKUXAR	ZIORDIA UDALETXEA

Egin zaitez bazkide!

Eta etxean jasoko duzu!



948 564 275 | 618 882 675
admin@guaixe.eus




Hamasei odol emailek aitortza jaso dute

Haietako lauk Iruñean jaso zuten zegokien domina, gainontzekoak, berriz, herrian. Joan den urtean bost odol emaile berri egin ziren. Autobusa etortzen denean, emaile izan nahi duenak, hara jo dezake

ETXARRI ARANATZ

Adona Nafarroako Odol Emaileen Elkarteko Etxarri Aranazko ordezkariaren festa hilaren 9an ospatu zen. Elizkizunaren ondoren, Iturri Eder jatetxean elkartu ziren. Adonako idazkari Uxua Garzandia Ojerrek odol emaileei eskerrak eman zizkien beraien eskuzabaltasunagatik, eta inguruan dituztenak emaile egitera animatzeko deia egin zuen.

Odola ehun alditan emateagatik aitortza jaso zuen Ignacio Lopez de Sabando Ezkerrak. Bera da Adonak Etxarri Aranatz duen ordezkaria. Bai berak bai odola 50 alditan eman duten Luis Migel Biain Peñak, Jose Manuel Jaka Artiedak eta Javier Loban Karasatorrek domina jaso zuten Odol emaileen Egunaren kontura Iruñeko Baluarte aretoan egindako ekitaldian (aurreneko biak aurten, atzeneko biak 2021ean).

Lau domina horietaz aparte, beste dozena bat domina ere banatu ziren odol emaile etxarriarren artean, guztiak ere odola 25 alditan emateagatik. Garzandiaren eta Lopez de Sabandoren eskutik jaso zituzten dominak ekitaldian izan ziren zazpi emaileek: M^a Victoria Garmendia Iriarte, Jesus M^a Goena Andueza, Eneka Uharde Leitza, Erkuden Imaz Larrea, Aitor Montori Maiza, Ander Muñoz Garzia eta Jone Zabaleta Ulaiar (bere ordezkariak, amak, jaso zuen). Lopez de Sabandok hurrengo egunetan eman zien domina ekitaldira joan ezin izan zuten Sebastian Araña Zabalarri, Ander Beltza Goldarazena, Iker Eras Otegiri, Jose Javier Maiza Begiristaini eta Imanol Reparaz Lizarragari.

Datuak

Adonaren Etxarri Aranazko ordezkariak 457 kide zituen joan den urtean, baina osasun arrazoiengatik edo bestelakoengatik



Aitortza jaso zuten odol emaileetako batzuk, Adonako ordezkariekin batera.

ODOLA EMATEKO AUTOBUSA MAIATZAREN 3AN ETA 10EAN ETORRIKO DA OSASUN ETXE PARERA

guztiekin ezin zuten odola eman. Hori 113k egin zuten, aurreko urtean baino 16 gehiagok. Guztien artean ohiko 228 odol emate egin zituzten, 2021ean baino 77 gehiago. Joan den urteko emateetatik 19 atzera bota zituzten, aurreko urtean baino 5 gehiago. Bestetik, ordezkariak 17 kidek beste herriren batean eman zuten odola. Azkenik, Adonako ordezkariak nabarmendu zuten joan den urtean bost odol emaile berri izan zirela, zortzi izan ziren 2021ean.

Odola emateko autobusa, autohemoteka, Etxarri Aranatzera maiatzaren 3an eta 10ean etorriko da eta 17:00etatik 21:00etara egon da osasun etxearen parean aparkatuta. Urteko azken bisitak irailaren 6an eta 13an egingen ditu, eta ordutegi bera izanen du. Hitzordua eskatzeko www.adona.es/eu webgunean egin daiteke.

Hasteko pausoak

Odol emaile izan nahi dutenak ere joan daitezke. Osasun etxean sendagile batek bere mediku historiari buruzko datuak jasoko ditu eta odol emaile izateko egokia bada, odola emateko baimena ematen duen orria sinatu beharko du emaile berriak. Ondoren, hemoglobina proba egingen diote, hau da, hatz batean ziztatutako bat egingen diote odol tanta bat ateratzeko. Dena ongi badago, emaile zenbaki batekin aterako da kontsultatik. Ondoren, emaileak autohemotekara joan beharko du odola emateko. Horren aurretik, tentsioa neurtuko diote aulki batean etzanda.

Hurrengo pausoa odola ematea izanen da. Hura poltsa batean sartzen da, kontserbatzeko eta ez koagulatzeke sustantziak dituenak. Eman ondoren, minutu batzuk suspertzeko geldirik egon beharko da, tentsioa hartu eta odol bankuko profesionalen oniritziarekin autohemotekatik ateratzeko baimena jasoko du. Odola emateko prozesua bukatzeko, beste odol-emaile batzuekin batera ondoko tabernan mokadu bat jateko eta zerbait edateko aukera izanen du.

Gazteendako kooperazio beka deialdia Arakilen

Gobernuz kanpoko
erakunde batekin lan egin
nahi duten gazteek aurkez
ditzakete eskaerak

ARAKIL

Arakilgo Udalak bigarren urtez jarraian gazteei zuzendutako kooperaziorako beka deialdia egin du. Udalak arakildar gazteengan sentsibilizazioa piztu nahi du, garapen bidean dauden herrialdeei garatzen laguntzeko, eta, aldi berean, gazteengan herrialde eta kultura ezberdinen arteko elkartasun kultura sustatzeko. Horretarako, gazteek garapenerako lankidetzat helburu duen irabazi asmorik gabeko erakunde batean boluntario gisa aritu beharko du tokian bertan, gutxienez hilabete batez. Eskatzaileak eskatu eta erakundeak egoki joz gero, egonaldiak hilabete baino luzeagoak izan daitezke.

Udalak beka deialdirako 2.500 euro ditu. Beka hartzen dutenei honako gastuak ordainduko dizkie udalak: irabazi asmorik gabeko erakundearekin topatu bitarteko joan-etorriak eta toki-ra iritsi bitarteko ostatu hartze-ko gastuak. Bekaren bidez jasoko den dirulaguntza gastuen proportzioan joanen da, eta gehienezko kopurua 1.250 eurokoa izanen da. Deialdian interesa duen gazteak eskabidea udalari maiatzaren 5era arte aurkez ditzake.

Inbertsioak, Gobernuaren laguntzen zain

Udalak Santa Marina kaleko sareak eta zorua berritzeko dirulaguntza eskaera egin dio Nafarroako Gobernuari, eta hura ebazteko zain dago. Aurten euriteek hondatutako bideak konponduko dituzte

ITURMENDI

Joan den urtean baino 32.920,34 euro gehiago ditu Iturmendiko Udalak bere aurtengo aurrekontuan, guztira 387.131,5 euro zehazki. Imanol Arbizu Perpiña alkateak azaldu duenez, "guztiak gora egin du: Sakanako Mankomunitateari egin beharreko ekarpena, lanak egiteko aurrekontuak, elektrizitatea eta beste; horregatik, handitu da aurrekontua". Udalean premiazko jo dute Santa Marina kaleko sareak eta zoladura berritzea, baita bero sarea han sartzea ere. "Hura ez beste, herri guztia berrituta dago, baina aurrekontu handia dute lanek eta, horregatik, lan hori Nafarroako Gobernuaren Toki Azpiegitura Planera edo dirulaguntza deialdira aurkeztu dugu. Oraindik ez dute ebatzi. Eta ez dakigunez zenbat diru emanen diguten, aurtun ez dugu lan horri aurrekontuan sartu", azaldu du Arbizuk. Deialdira aurkeztu duten eskaera bakarra dela zehaztu du.

Alkateak jakinarazi duenez, 2021eko euriteek kalteak eragin zituzten Urbanas dagoen Santa Marinarako bidearen goiko partean, luizia izan zen. Gainera, San Pedro ermitatik pasatzen den bidearen zati batean urak harea eraman eta harriak agerian



Iturmendiarrak frontenisean jolasten.

utzi ditu. Konpondu beharreko bi bide horiez aparte, ibaiak gainezka egiten du eta ibai ondoan hainbat txukuntze lan egin nahi ditu udalak. Udalak estatuari 25.424,79 euroko balioa zuen proiektua aurkeztu zion eta hark euriteek eta uholdeak eragindako kalteak konpontzeko 12.362,51 euroko dirulaguntza eman zion.

Bestetik, udalek nahi bezala erabiltzeko dirulaguntza jaso dute Nafarroako Gobernutik. Iturmendikoak, zehazki, 19.087,20 euro eskuratu ditu. "Gaztetxea hartzen duen eraikina udalare-

na da. Erdia gazte egoitza gisa erabiltzen da eta beste erdia udal biltegi gisa", azaldu du alkateak. "Etxeko teilatua berritu zen, baina udalaren zatian lurra oso gaizki dago eta konponketaren bat egin nahi dugu. Ez dakit diru horrekin zertarako iritsiko den, aztertzen ari gara", azaldu du alkateak.

Frontoian 2021ean LED argiak jarri zituen udalak, joan den urtean margotu egin zuten eta, martxoko azken astean herriko armatarria eta Iturmendi hitza jarri dute. Paretara itsatsitako biniloak dira.

irudia eta hitza. Kirol azpiegitu-
rako teilatuan dauden itajurak
udalaren egitekoen zerrendan
daude. Azken hori ez beste guztiak
izanen dira Iturmendiko Udalak
eginen dituen inbertsio nagusiak.
Horretarako, guztira, 66.266,31
euro daude aurrekontuetan.

Etxebizitza

Mediku kontsultategiaren gainean sendagilearen etxea zena dago. 160 metro karratuko azalera du etxebizitzak. Iturmendiko Udalaren asmoa da hurbitan banatzea eta bi etxebizitzak egitea. Arbizuk azaldu duenez, Nafarroako Gobernuak Nasuvinsa enpresa publikoarekin harremanetan jarri eta aukerak aztertu nahi dituzte.

Bestetik, almintearen lanpostu hutsa bete ondoren, Bakai-kuko eta Iturmendiko udalek partekatzen duten lanpostu bat, administrari laguntzailea, kontratazeko deialdia noiz egin aztertzen ari dira. Izan ere, Europako araudiak behartuta, administrazio publikoko langileen arteko behin-behinekotasuna %8 baino txikiagoa izan behar du 2024ko akaberarako.

Festen egutegia

- **Maiatzak 1,**
astelehena maiatzaren
jasotzea.
- **Maiatzak 13,**
larunbata San Migel.
- **Garagarrikak 4 domeka**
Trinitatea.
- **Garrikak 14-18,**
ostiraletik asteartera
festak.

The advertisement is split into two main sections. The left section has a teal background with white and yellow text. The right section features a black and white photograph of a man in a white shirt and bow tie, holding a large axe over his shoulder. In the top right corner of the image, there is a small black box with white text containing a phone number and a website URL.

bertako
igogailuak | ascensores

BENETAKO OROTARIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko

**IGOGAILUEN
MANTENTZE-LANEN
ESKAITZA
ZORROTZENA**

**+2.000 bezerok gudan
dute konfiantza**

848 87 09 17
bertoko.eus



Altsasuko 2. Elkartasun Azoka antolatu dute Sakana Harrera Haranak eta Altsasu Bigarren Hezkuntza Institutuak.

Elkartasuna praktikatzeko dei anitza

Sakanako Mankomunitateko Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuak, Sakana Harrera Haranak eta Altsasu Bigarren Hezkuntza Institutuak hainbaten laguntzarekin 2. Elkartasun Azoka antolatu dute Altsasun. Igandean, 11:00etatik 14:00etara, Baratzekobide plazan

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU
Anitzarteaneko Begoña Zestau
Baraibarrek azaldu du ekimenak

hainbat helburu dituela. Batetik, "etxean egoera onean eta erabiltzen ez ditugun gauzei bigarren

bizia ematea. Eta, horri lotuta, ditugun kontsumo ohiturei buruzko hausnarketa bulkatu nahi

dugu". Horregatik, ilbeltzaren 13tik gaur arte, 10:00etatik 13:00etara, garai batean Sociedad Deportiva Altsasua taberna zena zabalik egon da, herritarrek eramandako materiala jasotzeko. Liburuak, jostailuak, arropa, kafe jokoak eta beste egonen dira salgai.

Bestetik, "ekonomia egoera zaila dutenei erraztasuna eskaini egoera onean dauden produktuak modu onean eskuratzeko". Azkenik, saldutakoarekin ateratako dirua ibarreko gizarte erakunde bati bideratuko diote. Aurtan Sakanako Anfas izanen

da. Horregatik, erakundea ere presente izanen da azokan. Ezer saldu gabe geldituz gero, Elkarri Laguntza elkarteari emanen diote.

Azokan salmenta mahaiaz aparte, txoko gehiago ere izanen da. Batean gozoak dastatzeko aukera izanen da, bestean pintxoak, jolasean aritzeko aukera izanen da, baita hennarekin gorputz atalak edertzeko ere. Hainbat jatorritako sakandarren esarak jaso dira liburu handi batean, eta haiek irakurtzeko aukera izanen dute interesa duten guztiek. Gainera, liburuari ekarpena egiteko aukera ere izanen da.

Txokoz txoko dabilenak Help-NA gobernuz kanpoko erakundearen jarduna zein den ezagutzeko aukera izanen du. Beste batean Altsasun dauden hainbat ama hizkuntza ezagutzeko aukera izanen da. Txokoetako batean erakutsiko du zurrumurruek elkarbizitzari zer nolako kaltea egiten dioten, eta haiei aurre egiteko zer egin daitekeen azalduko dute. Nahi duenak hausnarketarako txokoa ere izanen du.

ELKARTASUN AZOKAN SALDUTAKOAK SAKANAKO ANFASENDAKO IZANEN DA

"Pateran etorritako mutiko baten istorioa ilustratu zuten"

UXOA AZPIROZ ARMENDARIZ ALTSASU BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUKO FILOSOFIA IRAKASLEA

Ikastetxeko komunitatea osatzen dutenen migrazio mugimenduak aztertu eta horiek plazara eramanez dituzte ikasleek. Gainera, haien adin bertsua zuenean estatua pateran iritsitako mutil baten istorioa ezagutaraziko dute azokan.

Nolaz institutua elkartasun azokaren antolakuntzan?

Definizioarekin bat egiten dugulako. Filosofia Mintegitik Elkartasun Eskolen proiektua koordinatzen dugu. Gure helburua da sustatzea garapenerako hezkuntza, 2030 Agenda eta hezkuntza inklusiboa eta kulturartekoa. Joan zen urtean parte hartu genuen eta, aurtan, nola ez, gure proiektua aurkeztera animatu gara.



Zertan datza proiektua?

Abiapuntua gure jatorriaren inguruan hausnarketa egitea da. Horretarako, ikerketa lana egin genuen. DBHko 1. mailako ikasleen familien jatorriaren inguruko genealogia zuhaitzak sortu genituen. Kalkulu taula batean datuak sartu, grafiko batzuk atera eta hortik mapa ilustratu bat egin genuen. Beste material batzuk ere sortu genituen. Horrekin guztiarekin

erakusketa egin genuen abenduan. Aldi berean, oso bisita berezi bat jaso genuen Zeruertz taldearen eskutik: Oussama izeneko mutilarena. Bera Kenitrakoa (Maroko) da, eta 14 urterekin estatua pateran iritsi zen. Gaur egun Iruñean bizi da. Bere istorioa kontatu zigun, eta gure ikasleek, A eta D ereduak elkarlanean, kamishibai formatuan bere istorioa ilustratu zuten.

Zer da kamishibai?

Japonian ipuinak kontatzeko erabiltzen den arte tradizionala da.

Beraz, Oussamaren istorioa ipuin gisa jaso dute.

Ipuin moduan eta, gainera, metodologia aktiboak erabiliz.

Ikaskuntza kooperatiboa erabiltzen dugu proiektuak aurrera eramateko, eta horrela egin dute. Baina ez bakarrik gela barruan, hizkuntza ereduen artean ere izan da kooperazioa. Izan ere, A eta D ereduak ikasleek elkarlanean eta metodologia aktiboen bitartez sortu dugu. Kamishibaiak 8 lamina ditu eta haietan istorio guztia jasotzen da.

Ikasleak elkartasun azokan kamishibai kontakizunak eginen dituzte?

Bai, hala da. Alde batetik, interpretazioak egingo dituzte, gainera lau hizkuntzatan: euskaraz, ukraineraz, arabieraz eta gaztelaniaz. Hainbat herrialdeetako eta jatorritako ikasleak ariko dira. Bestetik, guk erabili ditugun material guztiak erakusgai egongo dira

jendeak kontsultatu ahal izateko: Giza Eskubideak, Garapenerako Hezkuntza eta 2030 Agenda. Gainera, aurreko urteetan egindako kamishibaiak eta butaiak, antzerkitxoak, ikusgai izanen dira, eta animatzen den edonork interpretazioak egiteko aukera izanen du.

Beraz, parte hartu ahal da.

Bai, bai. Metodologia aktiboaren aldekoak gara, klasean eta institutuan bai, baina azokan ere bai.

Zerbait gehiago?

Jarduera berezi bat dugu. Aya izeneko Siriako neska batek Siriaren inguruan aurkezpen bat egingo du. Hurbiltzen den oro parte hartzera eta interpretazioa egitera animatuko dugu. Animatzen baldin bazarete, ongi etorri. Hurbildu ongi, ongi pasatuko dugu.

"Programen bidez pertsonen beharrei erantzuna ematen diegu"

OIHANE ANDUEZA ROS SAKANAKO ANFAS-EKO ARDURADUNA

Altsasuko elkartasun azokan ateratzen den dirua Sakanako Anfaseko izan da. Adimen urritasuna duten pertsonen eta haien familien alde lan egiten duen irabazi asmorik gabeko elkarte nafarra da Anfase. 62 urteko ibilbidea du eta 2017az geroztik Sakanan ordezkari du, Lakuntzan.

Zer lan egiten du Anfasek?

Hamaika programa ditugu, jaiotzen direnetik hasi, heldu aroan independentzia lantzekoekin segi eta zahartzaroarekin bukatzeko. Programa horien bidez pertsona horien beharrei erantzuna ematen diegu.

Lakuntzako egoitzatik Sakanarako zer eskaintzen duzue?

Bi programa daude. Batetik, arreta goiztiarreko programa eta, bestetik, trebetasun akademiko, sozial eta hizkuntza komunikaziorako trebetasunak lantzen dituen. Arreta goiztiarraren barruan, 0-3 adin arteko eskaintzen zaien arreta Nafarroako Gobernuarekin itunduta dago. 3 eta 6 urte artekoendako eskaintza ere badugu. Trebetasunen programa 6 urtetik 21 urte bitartekoendako da. Lakuntzan horiei ematen diegu erantzuna. Egia da Anfasek beste programa batzuk dituela. Esaterako, aisialdikoa eta oporretakoa Nafarroa guztian egiten da. Horiek ere sakandarrendako ere prestatuta daude. Hortaz aparte, informazio programa dago, familia eta biztanle guztiondako. Sentsibilizazio ere lantzen dugu, eta sakandarren beharrei erantzuna ematen ari gara lanean.

Ibarrean zenbat erabiltzaile dituzue?

Gaur egun Anfase 50 bat familia daude, 100 bazkide inguru dira. Arreta goiztiarreko programan 40 bat daude.

Bazkideak, elkarteetan ezinbestekoak!

Bai. Azkenean, Anfase aurrera eramaten dutenak familiak dira. Badaude batzuk arreta jasotzen dutenak, baina badaude beste



hamaika lagun bazkide direnak, beharrezkoak, jakina. Bazkidetzeko edo boluntario izateko www.anfasnavarra.org webgunean sartu edo Lakuntzako egoitzatik pasa daiteke edozein. Guztiendako atea beti irekia dugu: galdetzeko, interesatzeko, informazioa jasotzeko eta, bai, beti irekiak eta sareak egiteko prest.

Elkarlanerako prest?

Beti. Bai. Hezkuntza zerbitzuekin, gizarte zerbitzuekin, Sakanan ez dauden beste elkarteekin, Sakanako Mankomunitatearekin gero eta gehiago gaude harremanetan. Hori da gure helburuetako bat: sare horiek egitea, komunitatean parte hartzea areagotzeko eta komunitate barruan egoteko.

Zergatik parte hartuko duzue elkartasun azokan?

Lehenik eta behin eskerrak eman. Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuko arduraduna gurekin kontaktuan jarri zen familia baten bitartez. Berak esaten zuen adimen ezgaitasuna Anitzartean kontuan izan behar zuela, ikustarazi behar zela. Bai Anfase bai ezgaitasunaren inguruan lan egiten dugunok denok beti gaude prest plazara ateratzeko eta beste kideekin egoteko, parte hartzeko. Oso momentu baliogarria eta aberatsa da.

Zerekin egonen zarete azokan?

Txoko bat izango dugu informazioa eskaintzeko, dauden galderei erantzuteko. Bestalde, Liburuaren Eguna dela eta, Sakanako Anfaseko partaideak azokaren parte izateko orri markatzaileak egin dituzte. Horiek plazara ekarriko ditugu eta beste gauzekin batera salgai jarriko ditugu azokan. Eta liburu bat erosten badute, primeran.

Pixkekan, Urriztirainoko senda eginen du udalak

Bernoako galtzadako bidetari segituz, bidexkak baserriak eta igerilekuak lotuko ditu. Oinezkoak eta txirrindulariak autoen abiadura handitik babesteko ere balioko du. Ibasko errekaldean dagoen Sanpedroaldeko bideko zubia konpondu du udalak

URDIAIN

Etxarri Aranatz eta Urdiaín arteko baso eta mendietan barna 64 km-ko ibilbide sarea osatzen du GR 323 Bernoako Galtzadak. Haren zati bat Urdiaín herriko igerilekuetaraino doa. Ibilbidearen seinale txuri-gorriak duela bi urte margotu zituzten. "Baina ibilbidearen toki batzuek lohitzten dira eta oinezkoendako erosoago egiteko hareazko senda egitea erabaki genuen", azaldu du David Oroz Alonso alkateak.

Udalaren asmoa da Teileriko zabaletik Urriztiraino, baserrietatik igerilekuraino, metro bat zabal eta 2,5 km inguruko senda egitea. Lanak dagoeneko hasiak dira, Ibasko errekaldean dagoen zubi ondotik herrirantz hainbat metroan dago hareazko senda eginda. Orozek azaldu duenez, "udalaren baliabideekin eginen dugu, pixkekan-pixkekan. Aurrekontua eskatu genuen eta dirutza zen". Beraz, lanei ez die akabera eperik jarri. Senda Sanpedroaldeko bidearen ezkerrean eginen dute. Hala ere, alkateak argitu nahi izan du ez dela San Pedro plazaren erditik hareazko sendarik pasako. "Ibilbideko marka txuri-gorriak handik pasatzen dira, baina xenda beherantz, asfaltatutako biderantz eramanez dugu".



Urdiaingo basoa bidexka itxura hartzen hasi da.

Aipatu bide hori oinezkoek, txirrindulariek, irristalariak eta motordun ibilgailuek erabiltzen dute. "Autoak abiadura handian ibiltzen dira. Ea lortzen dugun udan igerilekura bizikletan joaten direnak senda hartzeko ohi-tura hartzea, horrela arriskua murrizteko", azaldu du Orozek. Oinezkoendako ere aholkua baliagarria dela gaineratu du.

Konponketak zubian

Ibasko errekaldean dagoen Sanpedroaldeko bideko zubiaren bazterreko babesak abiadura

handian joandako hainbat autoen kolpeak jaso dituzte. Zubia-aren eskuinaldeko harrizko murrua hainbat istripuren eraginez hautsita zegoen. Ezkerraldean, berriz, egurrez forratutako metalezko egiturak auto bati baino gehiagori eutsi ondoren itxura kaxkarra zuen. Hori ikusita, Urdiaingo Udalak biak konpontzea erabaki zuen, eta udal langileek martxoan egin zituzten lan horiek. Lanek 10.000 euro pasatzeko aurrekontua izan zuten, eta udalak laguntzarik gabe egin zuen lana.


EGURDIAN
sutarako egurra
608 57 03 57


Apirilaren 17tik 23 arte
HITZORDU ITSUA LIBURU BATEKIN
Zatoz Kaxetara gure tinder kulturalen parte hartzera!


Txalaparta
AMERNA
Taberna
948 467 070
Zumalakarregi plaza
ALTSASU

KOLABORAZIOA

Sakanako toponimiako generiko zenbait

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON

Badira, jakina, toponimo errepikatuak Euskal Herri osoan eta baita Sakanako herri ezberdinetan ere (*Barga, Lantegi, Basabea/Bekobaso, Itsasi...*), bereziki mugakide direnetan, eta are gehiago dira batean eta bestean errepikatzen diren toponimiako generikoak, hau da, toponimoaren ardatz ez direnak, baizik eta ardatz den horri deskribapen mailan zerbait eransten diotenak: gain, zulo, ibai, bide, erreka, bizkar... Horiek guztiak Euskal Herriko eremu zabalean dira ezagunak eta horregatik ez ditut zerrenda honetan sartuko. Soilik Sakanako toponimian ageri direnak jasoko ditut, hau da, Euskal Herriko beste lurralde batzuetakoekiko nahiko bereizgarriak datekenak. Eta azken hauek zerrendatuko ditut, alfabetoz ordenaturik hauek ere, ondorengo lerrootan.

aiseleku, itxoi Atsedean hartzeko lekua, arnasa hartzekoa. *Aiseleku* Olaztin, *Itxoizelaia* Urdiainen, *Deskansarri* Uharte Arakilen, **arrubi** Harrobia, harria ateratzen den lekua. "Cantera". Bakaikun *Gaintzan arrubi*.

auntzetxe Jatorrian, ahuntzak gauez biltzeko eraikina basoan. Normalean gainerako ganadua biltzeko ere bai. Guztiak edo ia guztiak Beheko Basoetako eremuan. *Auntzetxeberri/auntzetxezar* Olaztin.

axkoi Basoan landare ezberdinekin egiten den hazi tokia. "Semillero". *Baxateko axkoia* Etxarrin.

baltegi Gari balak biltzen direneko eraikina da, biltegia izanen genuke, beraz. *Baltegi* Ihabarren, Satrustegin eta Urritzolan.

baso, oian Zuhaitzez osatutako herri bakoitzaren eremua. *Beheko Basoa* edo *Basabea* iparraldean eta *Barga* hegoaldean. Bigarrena Arruazutik ekialdera: *Oiantxiki* Arruazun, *Oianandi* Irañetan, *Oianzabal* Hiriberrin, *Oiansoro* Urritzolan..

basoitxi / i(t)sasi *Zerratu* ere erabiltzen da eta ganadua bertan ez sartzeko leku itxi edo hesia da bertan landare gazteak arazorik gabe hazteko.. Biak hitz konposatuak (baso + itxi; idi + (h)esi), Lehena Ziordian eta Altsasun, bigarrena Olaztin, Altsasun, Iturmendin Aranatzten eta Arakilen.

bideberri Errepidea. Autobidea eta bideberria, biak ala biak asfaltatuak. Bentako bideberriazpia Urdiainen.

boton Botoi. Harri izenarekin lotuak gehienbat, txikia eta borobila esanahiarekin. *Arbotoneta* Arbizun, *Arripotto* Ihabarren..

buru Eremu bateko goiko aldea. *Areñaburu* Arbizun, *Epelburu* Uharte Arakilen eta Irañetan, *Olaboru* Aizkorben.

buztin Lohi mota, ontziak egiteko balio duena. *Buztiñeta* Irañetan, *Buztiña* Errotzen.

dermi(y)o/dermau Lantzeko lurrak osatzen dute dermioa. Burundan dermau.

erreten Ubide, errotara ura eramatekoa. 'Azekia edo kanala'. Erretenalde Bakaikun.

espila Etxe edo herrigune ondoko soro edo baratze hesitua. Hesia, harri zapalez (lauza) edo oholez egiten zen. *Espilaundi* Balaikun, *Espilleta* Lakuntzan.

euntze Larre, belardi, pentze. *Euntzeguti* Urdiainen.

galtzada Zorua harriz egina duen bidea. *Galtzadazar* Iturmendin.

galtzin (kare) Karea. Bereziki Aranatzten erabiltzen da. *Galtzinlabe* Lizarragan.

ganbela Aska, normalean harritzkoa edo egurrezkoa. Bertan ganaduari jatera eta edatera ematen zitzaion. Gehienetan iturria ganbelarekin izaten da. *Ganbeleta* Unanun, Uharten eta Egiarretan. *Ganbelatto* Etxarrenen.

gerrietu Lurra beherantz amildua, mugitua. "Corrimiento de tierra". *Gerrietako zulo* Lizarragan.

gibel Atze, zerbaiten atzeko aldea adierazten du. *Garategibel* Unanun, *Aizkibel* Iturmendin eta Etxeberrin, *Ardogibel* Irurtzunen.

goba Haitzuloa Burundan. Lurrean era horizontalean sartzen da, lezea, aldiz, bertikalean. *Gobazpi* Ziordian. Aranatzten eta Arakilen *kueba*.

igara/ihara/ara- Eihera, errota. *Igaratza* Aralarren eta Altsasun. *Arakil(e), Aralar(re)...*

irrist Laprast, labain. *Irrista* Lakuntzan, *Irristagor* Unanun.

kaba Eraikin edo soro baten inguruan egiten den zanja. *Kabalde* Altsasun.

kamio Normalean 'mando' izenari lotua doa eta galtzadaren sinonimotako har daiteke. *Mandakamio* Ziordian.

kipula Tipula. *Kipular* Ziordian eta *Kipulasoro* Urdiainen.

kolarre Borda baino txikiagoa den eraikina, basoan egiten dena. "Corral". *Angarteko kolarreak* Unanun.

lantei, tai lantegi aspaldiko zentzuan, zeinen arabera basoko lanek, bereziki zuhaitzak bota eta atera, *lantei* izena zeramaten. Burunda ekialdean *tai* (-tegi), lantegi izenaren laburdura, ganaduarekiko basoko lanak ere adierazten zituen eta bereziki ardiak biltzeko tokia. *Txirriñalantei* Dorraon, *Lantegi* Zuhatzun..

larrain Eultzia egiteko larrea. *Larreñondo* Etxarrin, Lakuntzan eta Arruazun; *Larrainpe* Dorraon eta Hiriberrin; *Larraitxo* Izurdiagan.

madura / si(y)ets Lehena Burundan. Sihats, hezetasun handiko eremua. *Siyetseta* Arbizun.

malkor Haitz, arkaitz. *Ubezako malkorra* Lizarragan, *Bitarteko malkorra* Uharten, *Malkorzurieta* Aizkorben.

mandio Malda edo eremu zaila bertan ibili edo aritzeko. *Mandiotxabala* Unanun.

monttei Mintegi. *Montteia* Dorraon.

muno Gorune nabarmena. "Colina". *Zelatamuno* Etxarrin.

musu Aurreko aldea. *Ibarmusu* Altsasun.

pokale Zerbaiten aurrealdea, etxekoa esate baterako. *Pokale* Arruazun, *Asapokal* Hiriberrin.

portalanga Bideak edo eremu bateko sarrera ixteko haga. Horrela Dorraon.

portillo/portu Harrate edo mendi gainera ateratzen den bidea. *Otsoportillo* Urbasan eta Hiriberrin, *Atazarko portua* Arruazun.

putzu, usin/otxin, idoi Toki hezea, paltsa. *Puttubioki* Etxarrin, *Osina* Olaztin, *Idoia* Etxarrenen, *Idoitxiki* Ihabarren.

sare/saroi (sare + goi?), **sarobe/sarabe** (sare + behe?) Ganadua biltzeko eremua baso edo mendian, goialdeetan, udarako lehenak eta beheko aldeetan besteak. Lehena bakarrik Aranatzten, baina Dorraon 1699ko mugarritzeetan *Veiernarisarobea* ageri zaigu. *Ziordisaroi* (Ziordia), *Perusaroi* (Olaztin), *Kortako Saroi* (Altsasu), guztiak daude herriak baino altuera handiagoan, basoetan.

soro / alor Lehena Burundan eta Aranatzten, bestea Arakilen. *Artasoro* Bakaikun eta Etxarrin, *Alorzar* Etxeberrin eta Zuhatzun.

tontor Punta, erpina. "Cumbre". *Tontorraundi* Unanun.

tufa Tuparria. "Cayuela, toba". *Tufeta* Irañetan eta Etxarrenen.

txara Zuhaitz mehe eta luzea, normalean pagoa, "Jara". *Txa(rad)igorri* Etxarrin.

txelei, txabala Zelai, zabala izenen hipokoristikoak, eremu laua, gorunerik gabea, ordokia. "Llano, llanura". *Mandiotxabala* Unanun.

txunka/iya Ihia, toki hezeetan ateratzen den belar landarea. "Junco". Horrela Dorraon.

txuritu Garbia, landaretzarik gabea. *Pelloneko txuritua* Unanun.

ubalde Ibaia. *Lezizako ubaldea* Arbizun eta Dorraon.

ubarka Ibaiko presa. Ur + arka bere osagaiak. *Ubarkatxota* Ziordian, *Ubarkagain* Egiarretan, *Uarka* Satrustegin.

urdin Toponimian gris kolorea adierazten du eta normalean 'harri' izenari lotua. *Arriurdin* Etxarrin eta Ihabarren, *Urdiña* Irurtzunen.

zapar Zapar, arbol mehea: urritza, pago gaztia; sasi eztiak, zaparrak dia (Ond Bak). Hesiak zaparrarekin iten zian 'hesiak zaparrarekin egiten ziren'. *Zapardegia* Olaztin, *Zapardi* Izurdiagan.

zier/zidar Zeharra, hegala, gehienbat lurrari lotua. Bakaikun zidar. "Ladera". *Eloako zubiko zierra* Dorraon eta *Otsaiko erreka* zidarra Urdiainen.

zotola Basoko txerriendako txabola, zohiz egina. Zotolen *tokiya* Dorraon.

DUELA 25 URTE...



Aralar Mendi elkartea eraberrituta

1997ko irailean itxi eta 1998ko apirilaren 26an zabaldu zituen atzera ere atek Aralar Mendi elkarteak. Uharte Arakilgo elkar-teak 330 bazkide zituen, eta haiendako txiki gelditzen zen egoitza. Azpiegiturak ere zaharkituta zeuden. Hori dela eta, elkartearen batzarrak eraikina biziberritzea erabaki zuen 1997an, eta haren ardura izan zuen zuzendaritza taldeak. Aralar Mendi elkarte

1968an sortu zenetik herriaren gizarte, kultura eta kirol dinami-zatzaile handia izan da.



Lanbide Heziketan matrikulatzeko deia egin dute Mari Jose Oiarbidek, Jose Julian Garziandiak eta David Orozek.

Bertan bizi, ikasi eta lan egiteko aukera onena: Lanbide Heziketa

Bertako ekonomiari zuzendutako ikasketa eskaintza du. Industria arloko ikasketak egin dituzten ikasle guztiak lanean daude. Bi ikasketa berri izanen dira: erdi mailako soldadura eta galdaragintza duala eta haur hezkuntzako goi zikloa euskaraz

SAKANA

Lanbide Heziketan (LH) izena emateko deia eginez, agerraldi bateratua egin dute ikastetxeko, Sakanako Enpresen Elkarteko (SEE) eta Sakanako Mankomunitateko ordezkariak: Mari Jose Oiarbide Izagirre, Jose Julian Garziandia Pellejero eta David Oroz Alonso. Hirurak elkarlanean ari dira LH eta ibarreko institutua sustatu asmoz. Garziandiak azaldu duenez, "hirurok partekatzen dugu diagnosa, Sakanako sozioekonomia errealtatearen ikuspegia eta ekonomia eta enpresa garapena garatzen laguntzeko jarraitu beharreko estrategiak". SEEko gogoratu du Sakanako Estrategia Planean jasotakoa: "argi dio ibarreko ekonomiaren motorra industria dela, egonkorra eta ongi ordaindutako enplegua sortzen duela, eta bere garapena errazteko

estrategiak ezarri behar direla, batez ere enpresek giza baliabideetan duten premiei erantzuteko". Orozek gaineratu du planean "LH institutua eta industriaren emakumezkoen enplegua potentziatzeko estrategiak eta jarduerak jasoak" daudela.

SEEko kideen artean alarma piztu zen joan zen urtean erdi mailako galdaragintza eta soldadura ikasketak bertan behera gelditu zirelako (3 matrikula besterik ez ziren izan). Sakanako enpresek kualifikatutako langile premia handia dutenez, zikloa berreskuratzeko harre-

manetan jarri ziren ibarreko eragileekin eta Nafarroako Gobernuarekin. SEEko dozena bat enpresek, gainera, pausoa eman eta ikasketa horiek ordaindutako dual intentsibo erakoak izateko konpromisoa hartu zuten. Elkartearen gestioek gobernua oniritzia jaso zuten. "Dei egiten diegu Sakanako gazteei, emakumezko eta gizonezkoei, izena eman eta gradu hori bideragarri egin eta egonkortzeko".

Aurrena Nafarroan

Garziandiak azaldu duenez, Sakanako da ordaindutako eskaintza dual intentsiboa egiten lehena. "Ahalik eta erakargarriena egin nahi dugu ikasketa. Bi ikasturteetan ikasleek 700 ordu pasako praktikak egingen dituzte enpresetan. Gure artean konpetentziarik ez egoteko, guztiok kopuru bera ordaindiko dugu:

Nafarroako metalgintzako derri gorrezko gutxieneko soldata ordaindiko diegu. LHren gauzarik onena da lan eginez ikasten dela", azaldu du Garziandiak. Gaineratu duenez, "ikasleak praktikak egiten dituzten enpresetan lan egiten bukatzen dute, enpresak ezagutzen dituelako eta trebatu dituelako".

Agerraldia egin duten hiru erakundeak Sakana LH institutuen hezkuntza eskaintzaren berri ematen ari dira ibarreko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako ikasle eta gurasoei. Gainera, ikastetxeetatik enpresetara bisitak antolatuko dituzte, baita alderantziz ere. "Horren guztiaren bidez azaldu nahi dugu LHko ibarreko ikasleek Sakanako enpresetan dituzten aukerak", azaldu du Garziandiak. Gaineratu duenez, "espero dugu esperientziak arrakasta izatea, horrela LHko beste modulu batzuk hobetu eta potentziatu ahal izateko. Estrategia da industria ziklo eskaintza handitzea, beti ere, ordaindutako ikasketa dual intentsiboan". Horretarako, LHren aldeko lan jarraitua egingen dute hiru erakundeek.

Bermea

Oiarbidek ziurtatu duenez, "LH ikasteak Sakanan lana opatzea ziurtatzen du. Gure ikastetxeko eskaintza ibarreko industria eta zerbitzu enpresen kualifikatutako lanpostu eskaerari erantzuteko diseinatuta dago. Gure ikasleen ehuneko handi bat lanean hasten da, %100 industria arloko ikasleen kasuan". Hala ere, ikastetxean kezka dute: "aspaldi oihartu ginen lan merkatuan sartzeko erraztasuna duten zikloetako batzuen plazak ez direla betetzen, bitartean enpresek trebatutako langile premia dute. Horregatik eskaintza bertako beharretara egokitzen dugu".

Generoek ikasketen aukeraketan duen eragina nabarmendu du: "industria zikloetan ez dago emakumezkoen, eta sozio-kulturaletan edo komunitatera zuzendutako ikasketetan, berriz, ez dago gizonezkoen". Hori ikusita Oiarbidek hausnarketa egin

du: "genero faktoreak lanbidea aukeratzeko garaian, oraindik ere, pisu izugarria du. Horrek gizonezko eta emakumezkoen arteko desberdintasuna handitzea dakar". Horri lotuta Orozek bi datu eman ditu: "Sakanako industriako langileen %17 besterik ez da emakumezkoa, ondorioz, ibarreko genero arrakala Nafarroako handiena da". Horregatik, Oiarbideren deia: "gure bizitzak hainbeste baldintzatzen duten joera eta estereotipoekin bukatu nahi badugu, belaunaldi berrien hezkuntzan ari diren agente guztien elkarlana behar dugu".

Oiarbidek LHren ezaugarria den malgutasuna eta ikasketa ibilbide ugariak azpimarratu ditu. "Trebakuntza eta profesio familia eskaintza zabala dago. Ondorioz, ikasleak hala nahi badute, 18 urterekin lanean hasi daitezke, ekonomia independentzia lortuz, edo trebatzen segi dezake nahi duen ikasketa maila lortu arte. LHren eskaintza bizitzaren edozein garaian trebatzeko eta ezagutza berritzeko aukera da. Beraz, lan etorkizuna erabaki behar duten gazteek baloratu dezatela egin nahi duten ikasketen enpleagarritasuna eta hartan lan egiteko aukerak non dauden".

Kezkak

SEEn bi kezka dituzte. "Gauden egoeran egonda ere, metalgintza eta siderometalurgiako enpresa garrantzitsu batzuk, hamar, ongi dabilta eta handitzeko asmoa dute. LHko trebakuntza duten kualifikatutako langileak behar dituzte, batean 10, bestean 20... 250 bat langile inguru beharko ditugu epe motzean", jakinarazi du Garziandiak. SEEn demografia ere kezka iturria da: "ibarrean hurrengo hamar urtetan 2.000 pertsona inguru jubilatuko dira. Industriak (5 langiletik gorako 140 enpresa) 4.000 bat langile ari dira lanean eta %25-30 ordezkatu beharko dira. Oso zaharrak diren plantillak ditugu. Horregatik, gakoa da gazteak eta emakumezkoak ere industrian lan egitea".

Orozek azpimarratu duenez, "industria gure ekonomiaren motorra da. Industria ongi badoa eragina du enpleguan, zerbitzuetan, merkataritzan eta abarretan". Ibarreko eta inguruko ikasleei Sakana LHn izena emateko deia eginez bukatu dute.

**ATE IREKIAK:
LARUNBATEAN,
10:00-13:00 ETA
ASTEARTEAN
09:00-19:00**

**GRADUETAN IZENA
EMATEKO EPEA
25ETIK 5ERA;
OINARRIZKO LH,
10ETIK 19RA**



Otsailean hasi ziren pediatrik eskatzeko elkarretaratzeak egiten. ARTXIBOA

Pediatria bat lanean hasi da, baina...

Asteazkenean joanen dela adierazi zuen. Osasun Departamentuak bilera deitua du hori eta beste gai batzuk aztertzeko. Pediatria plazak betetzeko kontzentrazioak egin eta erreklamazio orri mordo bat idatzi dituzte burundarrek

ALTSASU / OLATZAGUTIA / ZIORDIA

Altsasuko osasun eremuan pediatria lanean hilaren 11n hasi zen. Hasieran zabaldu zen astelehen, astearte eta asteazkenetan lan eginen zuela, goiz eta arratsalde, eta ostegun eta ostiraletan ez zela pediatriarik izanen. Baina aurreko astean eta aste honetan asteguneko egun guztietan lan egin du pediatriak. Hala jakinarazi du Sakanako Osasun Publikoaren Aldeko Plataformak. Osasun eskualdea normaltasunetik gertuago zegoela zirudien, baina, antza, pediatrik asteazkenean lana utziko duela jakinarazi du. Osasun Departamentuak gai hori eta beste batzuk aztertzeko bilera deitua du. Bes-

tela, plataformako kideek jakinarazi dutenez, aste honetan eta hurrengoan hiru herrietarako bost sendagile egonen dira. Ikusteko dago, beraz, Burundako osasun eskualdeak pediatria zerbitzuarekin segituko duen edo ez.

Altsasuk, Olatzagutiak eta Ziordiak osatzen duten osasun eskualdeari lanaldi osoan ari den pediatria bat eta lanaldi erdian ariko den beste bat dagokio. Beraz, pediatria bakar eta etortzeak ez du egoera guztiz konpontzen, baina ezer ez zegoen tokian, bada zerbait. Izan ere, lau hilabete eman dute pediatriarik gabe dute Altsasuko, Olatzagutiko eta Ziordiko haurrek. Kasu batzuetan

erizainek hartu dituzte haurrak. Baina askotan familiako kide batek autoa hartu eta Iruñeko San Martin osasun etxera edo ospitaleko larrialdietara joan behar izan dute gaixotutako haurrak pediatria batek arta zitzan. Jarraipena eskatzen zuten gaitzen kasuan egunero joan-etorrian aritu behar izan dute familiek. Bestalde, 15 urte bitarteko haurren aldian-aldiko hainbat azterketa bertan behera gelditu dira.

Protesta

Sakanako Osasun Publikoaren Aldeko Plataformak maiz ateratu du kalera Altsasuko osasun eskualdeko mediku faltaren eskaera. Hedabideetara ere jo dute eta

Osasun Departamentuko arduradunekin biltzea ere lortu dute. Hori dela eta, medikuak ekartzeko egindako elkarretaratzeak bertan behera utzi zituzten otsailaren 15ean. Pediatria faltagatik kezkatuta zeuden guraso batzuk, gehienak amak, plataformak izandako "arrakasta" kontuan izanik, bilera deitu zuten otsailaren 10erako. 40 bat burundarrek erabaki zuten antolatzea eta pediatria zerbitzua aldarrikatzeko mobilizatzea.

Otsailaren 24an, ostiralarekin, aurreneko kontzentrazioa egin zuten Altsasuko udaletxearen parean. Osasun Departamentuak pausoak ematera behartuta ikusi zuen bere burua. Hala, lehenik iragarri zuen martxoaren 13an familia mediku bat etorriko zela pediatria kontsultak pasatzera. Hura ere asteko lehen hiru egunetan lan egitekoa zen. Osasun-bidearen iragarpena ez zen bete.

Altsasu, Olatzagutia eta Ziordiko Osasun Kontseiluaren bileran parte hartu zuen Nafarroa Iparraldeko Lehen Mailako Arretako eta Asistentzia Jarraitutasuneko zuzendariorde Susana Miranda Alkotzek martxoaren 29an. Mirandak jakinarazi zuenez, apirilaren 4an, pediatria bat lanean hasiko da Altsasuko osasun eskualdean. Astelehen, astearte eta asteazkenetan goizez eta arratsaldean lan egingen zuela jakinarazi zuen Mirandak. Ez zen halakorik gertatu. Udaberriko oporrak pasa ondoren, hilaren 11n, hasi zen lanean.

Pediatrik ekartzeko eskaera sustatu duten gurasoek bestelako presio neurria ere erabili dute. Batetik, osasun etxean erreklamazio orriak betetzeko deia egin zieten burundarrei. Eskaera bera osasun karpeta bidez egin dute batzuk.

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Bidean Osasun Garraioak Sozietate Mugatua izena izanen du enpresa publiko berriak. Nafarroako Gobernuak erabaki hori hartu zuen apirilaren 5eko bilkuran. Beraz, gaur egun bi enpresa pribaturen bidez (Baztan Bidasoa eta SSG) eskaintzen den zerbitzua foru administrazioaren ardura izatera pasako da. Gaur egun bi enpresek 89 anbulantzia eta 321 langile dituzte, osasun larrialdietan teknikari eta gidariak dira. Plantilla guztia Nafarroako Gobernuaren enpresa publikoko langile izatera pasako dira, subrogatu egingen dituzte.

Santos Indurain Orduña kontseilariak azaldu duenez, "enpresa juridikoki sortzeko gobernuak emandako baimena osasun garraioerederu berrirako trantsizioan aurreneko pausoa da. Enpresa ezartzeko epe bat beharrezkoa izanen da, baina, bitartean, erabiltzaileak zerbitzua izaten segituko dute". Anbulantziek bi motatako osasun garraioa egiten dute: larrialdietakoa eta programatutakoa. Aurrenekoa ezusteko edozein ezbeharri erantzuna emateko da. Atzena, berriz, Osasunbideak planifikatutako arta zerbitzuaren parte da. Esaterako, pertsonak etxeetatik errehabilitaziora, dialisira, kimioterapiara, kontsultetara edo bestelako tratamenduak hartzera eramatea. Urtean halako 240.000 lekualdatze egiten dira Nafarroan.

Kontseilariak zehaztu duenez, "gaur egun zerbitzua eredu misto batekin eskaintzen dugu, enpresek anbulantziak eta teknikariak jartzen dituzte, baina osasun arreta Osasunbideko langileek ematen dute anbulantzietan. Osagarri gisa Nafarroako Suhiltzaileen anbulantzia zerbitzuak osasun larrialdietan eta larrialdi kasuetan laguntzen du". Indurainek adierazi zuenez, "aldaketarekin larrialdietako eta planifikatutako osasun garraioa Nafarroako Gobernuaren langileek egingen dute, gobernuaren bitartekoekin, eta suhiltzaileekin elkarlan bera mantenduko da". Anbulantzia horiek guztiak beteta daudenean, Gurutze Gorrikoak edo DYAKoak erabiltzen dira. Azken erakunde horrek Sakanan, Altsasun, bi anbulantzia ditu.

Enpresa berria Nafarroako Enpresa-Korporazio Publikoaren (CPEN) baitan kokatuta dago, Osasun Departamentuarekin

Larrazak NUPeko zuzendaritzan segituko du

Ramon Gonzalo Garciak errektore karguan errepikatu du eta bere zuzendaritza taldeari eutsi dio

ARBIZU

Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP) errektorea aukeratzeko hauteskundeak martxoaren 27an egin ziren. Azken lau urtetan errektore izandako Ramon Gonzalo Garciarena izan zen

hautagaitza bakarra. Unibertsitate komunitatearen babesa jaso ondoren, Gonzalo beste lau urtez izanen da errektore. Kargua garagartzaroaren 2an hartuko du. Hala ere, errektoreak jakinarazi du zuzendaritza lanean aldame-

nean izanen duen lantaldea aurretik zuen bera izanen dela, aldaketa bakar batekin.

NUPen goi ardurak izaten segituko dutenen artean dago Martin Larrazza Kintana arbizuarra. Aurretik ere izan ditu kudeaketa ardura karguak unibertsitatean: Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko idazkaria eta NUPeko Sarbide koordinatzaile nagusia izan da. Besteak beste, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Graduako materia koordinatzailea izan da.



Martin Larrazza Kintana. NUP



Jendaurreko larrialdi simulakroa Altsasun. ARTXIBOA

Osasun garraioko enpresa publikora

Nafarroako Gobernuak erabaki du zerbitzu hori emanen duen enpresa bat sortzea. Osasun Departamentuaren mendekoa izanen da, eta esleipen bidez lan hori egiten duten bi enpresa pribatuen egitekoa administrazio publikoaren esku geldituko da

adskribatuta. "Sozietate publiko denez, elkarrekin ariko diren Batzar Nagusiak eta Administrazio Kontseilu batek administratu eta ordezkatu du. Gutxienez hiru eta gehienez hama bi kontseilari izanen ditu", azaldu du Indurainek.

Internalizazioa

Gobernuak hartutako erabakiarekin pozik da Alfredo Zelaia Goikoetxea bakaikuarra, "hobekuntza da", ziurtatu du, "azpikontratatuta zegoen zerbitzu bat gobernuak zuzenean ematera pasako da". Zelaia 25 bat urteko eskarmentua duen osasun larrialdietan teknikari eta gidaria da. Azaldu duenez,

"aspaldi zerbitzu publikoa zen guztiz. Baina hartan lanean aritzen diren langileak jubilatuta ahala gobernuak lan hori emateko lehiaketak deitzen hasi zen. Horrela hasi ziren enpresak sartzen, hasieran familia enpresak ziren, baina, ondoren handiagoak sartu ziren. Pitteakako pribatizazio prozesua izan zen". Gaineratu duenez, orduan larrialdietako sarea

"ASPALDI ZERBITZU PUBLIKOA ZEN. BAINA LANGILEAK JUBILATU AHALA LEHIAKETAK DEITU ZITUZTEN"

Gurutze Gorriaren eta DYaren ardura zen.

Osasun larrialdietan teknika-riak azaldu duenez, "lehiaketa deitzean, gehienezko diru kopuru bat dago, eta eskaintza merkeenari ematen zaio. Horrela, merkeago ematen ditu zerbitzuak administrazioak eta bere langileak ez direnez, administrazioak arazo bat kentzen du, ez du horretaz arduratu beharrik". Zelaia zerbitzuaren publikazioari onura ikusi dio: "Nafarroa guttirako enpresa bakarra izatean kostuak merkatu egingen dira, eta zerbitzu gehiago emateko aukera izanen du. Gaur egun enpresek bakoitzari dagokion eskualdean lan egiten dute soilik".

Eperik ez

Nafarroako Gobernuak onartutako espedienteak barnean ditu motibazioa eta sorrera helburua jasotzen dituen Jarduketa, Inbertsio eta Finantzaketa Programa bat, Estrategia Plana, sozietate eta kudeaketa arloen egitura, ondarearen eta baliabideen erregimena, esparru juridiko aplikagarria, ekonomia eta finantza aurreikuspena, profesionalak eta kudeaketa arloko gaiak, beharrezko softwarea, balizko oinarriak, anbulantziak, eta abar. Indurainek azaldu zuenez, "orain hastear den bigarren fasea gauzatzen hasiko da, baita ardura hartzen ere; aurrekontu hornidura eta gaur egun zerbitzua ematen duten bi enpresetako giza eta baliabideen trantsizioa nola egin zehaztuko da".

Zelaiak argitu duenez, "gobernuak ez du eperik eman eta langileok ez dakigu ezer. Enpresa sortu beharko dute lehenik, haren organigrama eratu, gorpuztu eta, azkenik, subrogazioa etorriko da. Gobernu berria eratu arte mugitu

"BAKARRAREKIN KOSTUAK MERKETU ETA ZERBITZU GEHIAGO EMATEKO AUKERA IZANEN DA"

mendu gutxi egonen da. Hala ere, departamentua zerbait aurreratzeko hasi daiteke. Baina aurrekontua izan arte mugatuta egonen da". Bakaikuarrak azaldu du zergatik langileak pasako diren sozietate mugatu bateko plantillara eta ez Osasunbideko langile izatera: "praktikoago eta azkarragoa delako. Osasunbideko langile izateko prozesua zailagoa da, oposizioak deitu beharko lirateke. Balear Uharteetan eta Errioxan horrela internalizatu dute zerbitzua". Zelaiak gaineratu duenez, "langileen subrogazioa egiterakoan haien antzinatasuna kontuan izanen da. Enpresan lanean luze daramaten langileak izanen dira lantokia aukeratzeko lehenak. Hala, 17 bat urteren ondoren Altsasura lanera etorriko naiz", aurreratu du.

Bidean Osasun Garraioak SM enpresa eratzean gaur egun daukeen langile kopuru bera hasiko dira lanean. "Baina administrazioko lan egutegia ezartzera joko da, hau da, langileek ordu gutxiago lan egin beharko dute urtean. Beraz, langile gehiago kontratatuko beharko ditu gobernuak", aurreratu du Zelaia.

Ibarra

Sakanan Baztan Bidasoa enpresak ematen du larrialdietako eta programatutako osasun garraio zerbitzua. "Batzueta, premia dagoean, Araia aldean ere zerbitzua ematen du", zehaztu du Zelaia. Enpresak ibarrean bi anbulantzia ditu. Bata, larrialdietarako da, urteko ordu guztietan zerbitzua emateko prest egon behar du. Hartan hamar langilek lan egiten dute. Bigarren anbulantziak planifikatutako osasun garraioan aritzen da eta langile bat du. "Batez ere Iruñean gidaria eta laguntzailea joaten dira. Landa eremuan ez", zehaztu du bakaikuarrak. Sakanan 600 eta 700 larrialdiz arduratzen dira urtero. Programatutako osasun garraioak jakitea zailagoa da. "Altsasuko osasun eremuan medikurik ez zegoenean anbulantzia askotan erabili zen, gaixoa han sartu eta larrialdietara", jakinarazi du Zelaia.

Enpresa publikoak bere anbulantziak eta langileak non izanen dituen zehazteko dago. "Suhiltzaileen parkeetan edo osasun etxeetan izanen da. Azken horiek lehentasuna dutela dirudi, azken finean, anbulantziak lehen arretako baliabide bat baitira", nabarmendu du Zelaia.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI
ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO
LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 /
kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 21

ALTSASU Tailerra.

Pun, pun, Coración ipuin interaktiboa sortzeko lehen hezkuntzako haurrendako tailerra Manolita Thunders artistaren eskutik, *Liburuaren Astea* egitarauaren barruan.
18:00etan, Iortia kultur gunearen erabilera anitzeko gelan.

ZIORDIA Topaketa.

Antikapitalistak taldearen *Euskal Herriko Ezker Eraldatzailea Eztabaidatz* Udaberri Eskola.
19:00 Ongietorria eta eskolaren aurkezpena.
22:00 Risoterapia politikoa.

IRURTZUN Kontzertua.

Julene Lotero kantautorearen kontzertu akustikoa, Larrazpi Egunaren egitarauaren barruan.
19:30ean, Larrazpin.

LARUNBATA 22

ZIORDIA Topaketa.

Antikapitalistak taldearen *Euskal Herriko Ezker Eraldatzailea Eztabaidatz* Udaberri Eskola.

09:30 Erreprodukzio sozialaren teoria feminismitik, Júlia Cámara historialaria, Anticapitalistas-eko eta militante feministaren eskutik.

11:30 Eskuin muturraren gorakada eta antifaxismitik proposamenak, Miguel Urbán eurodiputatu eta Anticapitalistas-eko militantea.

17:00 Euskal Herriko ezker eraldatzailearen gaineko eztabaida: Pello Igereri ELA, Jabier Saenz ESK, Patxi Azparren Ezker Soberanistak, Dani Askunze GKS, Neskutz Rodríguez Antikapitalistak.

22:00 Zapalduen antzerkia, Iker García Antikapitalistak-eko militantearen eta Laressistens Kolektiboaren eskutik.

LAKUNTZA Sakanako Mungimendu Sozialistaren eguna.

Sakanako Kontseilu Sozialistak, GKS, Ikasle Abertzaleak-ek eta Itaiak antolatuta, Iraultzaren norantza lelopean.

12:00 Hitzaldia: Komunismoa eta Euskal Herriaren askatasuna: nazio auzia eztabaidagai. Kultur etxean.

14:30 Bazkaria. Frontoian.

17:00 Boxeo eta Kick Boxing ikuskizuna. Frontoian.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

En temporada baja gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Ostirala 21 19:00
Igandea 23 19:30

Oink oink familiarterko filmaren emanaldia, euskaraz
Igandea 23 17:00

Air gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Osteguna 27 19:00

19:00 Bassagain Sound System. Biltokin.

22:00 Kontzertuak: Muga Zero, Istilu eta Boot Boys. Frontoian.

02:00 DJ Morti. Biltokin.

OLAZTI Rallysprinta.

Sakana Motorsport eskuderiak antolatutako V. Olatziko Rallysprinta.
13:00etan, herrian.

IRURTZUN Larrazpi eguna.

Barazkigunen.
14:00 Bazkaria.
16:30 Karropoteoa.
20:00 Kontzertuak: SALV Rural Hardcore, Txakurrak, Sarraski, The Dillingers eta Txarteoak.
03:00 DJ Jotatxo.

ALTSASU Antzerkia.

Yllana konpainiaren *Passport* komediaren emanaldia.
19:30ean, Iortia kultur gunean.

IGANDEA 23

ZIORDIA Topaketa.

Antikapitalistak taldearen *Euskal Herriko Ezker Eraldatzailea Eztabaidatz* Udaberri Eskola.
10:00-12:00 Transizio ekologikoari eta borroka ekosozialari buruzko tailerra. Aurkezlea: Martín Lallana Anticapitalistas-eko kidea. Hizlariak: Gorka Laurnaga Jauzi Ekosoziala, Pablo Lorente Sustrai

IRURTZUN Aixitako gaztelua: Arakilgo zaindari 2011-2020 esku hartze arkeologikoen inguruko erakusketa.
Apirilaren 23ra arte. Pikuxar tabernan.




ALTSASU Liburuaren astea: Saharako liburutegiak ezagutu nahi? Bubisher proiektuaren erakusketa.
Maiatzaren 15era. Liburutegian.



OLAZTI Mugarik gabe Nafarroa elkartearen Baratze kritikoa erakusketa.
Maiatzaren 5era arte. Liburutegian.



ALTSASU Koldo Arnanz tailerra: 30 urtez artearen magiapean erakusketa. Astelehenetik ostiralera **17:00etatik 20:00etara, larunbatean ikuskizuna baino ordu bat lehenago eta igandean 18:30etik 19:30era.** Maiatzaren 21era arte. Iortia kultur gunearen erakusketa aretoan.



Erakuntza, Itxaso Balza de Vallejo eta Rebeka González de Araiza Arabako Mendiak Aske, Álvaro Campos EHU energia ingeniari-zaileko irakaslea.

12:15-13:45 Nola eraiki antikapitalismoa gaur? Asanblada irekia.

ARBIZU Lore eta Liburu Azoka.

Salmahaiak: Lore eta landareak, antiguleko gauzak, artisautza eta liburutegiko liburuak.
10:30etik aurrera, plazan.

ETXARRI ARANATZ

Amalurra Azoka. Plazan.

10:00-14:00 Azoka gardenen: Sakanako eta Nafarroako Ekoizle eta Artisauen postuak. Artisauak: zapatak,

txotxongiloak, serigrafia, forja, larrua, bitxigilea, saskigilea, goilara egilea, zeramika egilea. Ekoizleak: ukenduak, ardoa, barazkiak, esnekiak, gaztak, txerrikiak, elkea olioak eta babarrunak, ezti, aunts gazta. Musika: Etxarriko Gaiteroak.

10:30 Ardien ile mozte erakustaldia: Xabi Lasa eta Mikel Etxabarria.

12:30 Zikiri errearen dastaketa.

OLAZTI Lore Azoka.

Lore eta Landareen XIII. Azoka.
10:30etik 14:30era, San Migel plazan (eguraldi txarrarekin frontoian).

ALTSASU II. Elkartasun Azoka.

Txokoak: salmahaiak, ANFAS, Altsasu BHI, Ama hizkuntzen txokoak,

ZORION AGURRAK



Oihane
Zorionak pittina! Ondo pasa eguna! 5 urte iada! asko maite zaitugu. Aitona eta amona.



Er[✓]iti aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es



LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

Ez bota etxea leihotik!

Zurumurru, Hausnartzea, Henna, gozoak, pintxoak eta HELP-NA GKE.
11:00etatik 14:00etara, Baratzekobiden (eguraldi txarrarekin frontoian).

ETXARRI ARANATZ Aizkolaritza.
Sakanako Binakako Aizkolari Txapelketa. Bikoteak: Arkaitz Jauregi eta Iker Gorriti, Iban Resano eta Goizeder Beltza eta Eloi Kortxero eta Juanjo Erdozia. Aizkolari gazteak: Jon Erdozia eta Maika Ariztegi eta Aritz Oiarbide eta Beatriz Tango. Harri jasotzaileak: Aitor Oiarbide eta Alvaro Zugarrondo eta familia.
13:00etan, plazan.

OLAZTI Dantza ikuskizuna.
Violeta Borruel dantza konpainiaren *Blu* ikuskizunaren emanaldia.
17:00etan, kultur etxean.

IRURTZUN Dantza eta ikus-entzunezko emanaldia.
Basotik itsasora 2.0 Dantzaz konpainiaren dantza ikuskizuna eta Beñat Gereken ikus-entzunezkoa uztartzen dituen emanaldia, Sendaberri paisaia eszeniko berriak programaren barruan.
19:30ean, kultur etxean.

ASTELEHENA 24

ALTSASU Elkarretaratzea.
Pentsio duinen alde.
12:00etan, Zumalakarregi plazan.

ASTEARTEA 25

ARBIZU Solasaldia.
Hazieraren bidelaguntza solasaldia: Haur txikien garapena, autonomia, helduarekin harremana, arauak eta mugak osasuntsu hezteko, haur txikiaren harremanak eta komunikazioa

eta nola lagundu dezaketen helduek.
17:00etatik 19:00etara, Kattukan.

ETXARRI ARANATZ Liburu Eguna. Plazan.
17:00-19:00 Etxarriko liburutegiaren liburu trukea eta Kaxeta liburutegien liburu salmenta.
17:30-18:15 Birjiñe Albira ipuin kontalaria: *Liburuen etxea.*

ALTSASU Hitzaldia.
Gure seme-alaben pantailen erabilera eta horren ondorioak hitzaldia. Altsasu, Olazti eta Ziordiko gizarte zerbitzuak antolatuta.
17:00etatik 19:00etara, Gure Etxea eraikinean.

IRURTZUN Hitzaldia.
Energia komunitateak. Zer aukera ditugu kontsumitzeko? Sakanako Garapen Agentziak, Goiener, Becoop eta Nasuvinsak antolatuta, Irurtzuno Udalaren laguntzarekin.
18:30ean, kultur etxean.

ASTEAZKENA 26

ZIORDIA Hitzaldia.
Miren Agur Meabe idazlearen Nola atondu (dudan nire) gela bat norberarena Virginia Woolfen lana oinarri hartuta bere poesiaren lanaren inguruko hitzaldia, *Literatura Geraldia* programaren barruan.
19:00etan, liburutegian.

OSTEGUNA 27

ALTSASU Hitzaldia.
Energia komunitateak. Zer aukera ditugu kontsumitzeko? Sakanako Garapen Agentziak, Goiener, Becoop eta Nasuvinsak antolatuta, Irurtzuno Udalaren laguntzarekin.
18:30ean, kultur etxean.

ESKELA

Angel Armendariz Mugueta

"Txatxamatxalinatxu jaio zan urtian herria ta kofradia hasarratu ziran... eleeeeeee"

Kantuko lagunak
Altsasu

ESKELA

Angel Armendariz Mugueta

Une latz hauetan bat egiten dugu familiaren saminarekin

Kukuerreka elkarteak
Altsasu

ESKELA

Jose Luis Gonzalez Franco

Bizi duenak soilik daki ze sakona den min hau.
Zuekin gaude.

Leireren kuadrilla

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

ESKELA

Angel Armendariz Mugueta

Zure umore alaia, zure irribarrea eta zurekin pasatutako une goxoak ez ditugu inoiz ahaztuko.

Zure kuadrilla

ESKELA

Angel Armendariz Mugueta
2023/04/17

Jaio behin amets sarri borroka beti hil inoiz ez

sortu
Altsasu

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI-ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 - www.izarratanatorio.com

IRACHE tanatorioak
Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70
🐦 @Grupolrache
📘 Grupolrache
🌐 www.tanatoriosirache.es

ESKELA



Felipe
Ceberio Catón

Negar ein dezakegu fan ziñelako,
o bizi izen ziñelako far ein.

Etxekuek

ESKELA




Felipe
Ceberio Catón

Osaba, gure bihotzetan betiko

Katon etxekuek
Etxarri Aranatz

OROIGARRIA



Mari
Barandiaran
Aguirrebengoa

I. urteurrena

Amona, beti gurekin

Etxekoak
Altsasu

OROIGARRIA



Maria Luisa
Zelaia
Mendia

II. urteurrena

Beti nire bihotzean

Jesus

OROIGARRIA



Maria
Luisa Zelaia

II. urteurrena

Noizbait, nolabait eta nonbait
zurekin hegan egin nahi nuke.

Zure ama

OROIGARRIA



Jose Mari Mercero Lizarraga

IV. urteurrena
(2019ko apirilaren 25ean hil zen)

Alaitasunaren iturritik edan genuen elkarrekin
oroimenean izango zara zu beti gurekin

Etxekoak
Unanu

JAIOTZAK

- **Eder Pazos Fernandez**, marsuaren 30ean Lakuntzan
- **Manex de Langarika Iragi**, apirilaren 1ean Iturmendin
- **Martin Rollan Lobato**, apirilaren 2an Urdiainen
- **Jayden Borah Kuruwah**, apirilaren 4an Altsasun
- **Nora Pires Arangoa**, apirilaren 6an Iruztunen
- **Maddi Vitoria Fernandez**, apirilaren 8an Urdiainen
- **Alaia Cortes Rodrigues**, apirilaren 10ean Altsasun
- **Ayla Belarmino Ferreira**, apirilaren 12an Altsasun
- **Nerea Yaben Barroso**, apirilaren 16an Altsasun
- **Araitx Bergara Navarro**, apirilaren 16an Iruztunen

HERIOTZAK

- **Mari Carmen Gastaminza Bujanda**, marsuaren 29an Olaztin
- **Marcelina Romo Cobo**, apirilaren 10ean Altsasun
- **Araceli Sarasa Puente**, apirilaren 11n Iruztunen
- **Felipe Ceberio Caton**, apirilaren 15ean Etxarri Aranatzen
- **Angel Armendariz Mugueta**, apirilaren 17an Altsasun
- **Jose Luis Gonzalez Franco**, apirilaren 18an Altsasun
- **Maria Angeles Bengoetxea Perez de Villareal**, apirilaren 19an Altsasun
- **Jose Joaquin Martinez Guerrico**, apirilaren 19an Altsasun

IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

SALGAI

Etxarri Aranatzen pisu zentrikoa salgai: hiru logela, bi komun, sukaldia, egongela eta trastelekua, 78 m karratu ditu eta bizitzera sartzeko prest dago. Informazio gehiago 628 265 413 Edurne.

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZA

Iruztungo Pikuxar tabernan zerbitzari eta sukaldari lan poltsa: Asteburuetan eta udan lan egiteko gehien bat. Espereintzia baloratzen da eta euskara ezinbestekoa da. Curriculumak jasotzen ditugu tabernan utziz edo pikutaberna@gmail.com helbide elektronikora bidalita.

JAIBUSERAKO ARDURADUNAK BEHAR DIRA:

Interesa dutenek bi baldintza bete behar dituzte, adin nagusia izatea eta euskaraz jakitea. Informazio gehiago Sakanako Oinarriko Gizarte Zerbitzuetan: Iruztun aldekoak 605 466 805 tfnora deitu, Etxarri Aranatz aldekoak 679 534 481 telefonora eta Altsasu aldekoak 616 841 995 telefonora.

ALTSASUKO UDALAK 8 LANGABE KONTRATATZEKO HAUTAPROBA PROZESUA HASI DU:

Urte erdiz lanaldi osoan lan egingo dute, lau lorezaintza ofizial lanetan eta besteak zerbitzu

anitzetako peoi lanetan. Deialdian interesa dutenek maiatzaren 15erea arteko epea dute Nafar Lansareren Altsasuko bulegoan izena emateko. Informazio gehiago www.altsasu.net web orrian.

Mank-eko kudeatzailea oposizio lehiaketa bidez ordezkatzeko prozesua: Sakanako Mankomunitateak hautapen prozesua zabaldu du kudeatzailea ordezkatzeko, bertan parte hartu nahi dutenek eskabidea aurkeztu beharko dute Sakanako Mankomunitatean maiatzaren 11ko 14:30a baino lehen. Goi mailako unibertsitate titulua, B mailako gida-baimena eta EGA edo baliokidea izatea derri-gorrezkoak dira.

LEHIAKETA

ZirTok umore errimatuaren lehiaketa: Bertsozale Elkartek antolatuta, TikTok sare sozialan euskarazko umore errimatu sustatu asmoz sortutako bideo motz lehiaketa, baita zirtoa (erantzun errimatu barregarria) eta zirto-lariak ezagutarazteko asmoz ere. 13 urtetik gorako edozeinek har dezake parte, nahi adina bideo igota, betiere ZirTok kontua etiketatua. Hiru sari egongo dira 500 euroko bat eta 250 euroko bi. Apirilaren 1etik maiatzaren 31ra bitarte egongo da parte hartze-

ko aukera TikTok sare sozialan. Informazio gehiago eta eredu ezberdinen bideoak www.zirtok.eus web orrian edo TikTokeko ZirTok kontuan.

OHARRAK

Arakilgo Udalak gazteendako kooperazio beka deialdia egin du: Garapen bidean dauden lurraldeetan kooperazioa helburu duen gobernu kanpoko erakunde batekin lan egin nahi duten gazteei zuzenduta dago. Eskabideak aurkezteko epea maiatzaren 5ean amaitzen da, informazio gehiago Arakilgo Udalean edo www.arakil.eus web orrian.

Emakumeen bilgunearen zabalpen zerrenda martxan: Altsasuko Udaleko Emakumeen Bilguneak Whatsapp aplikazioa zabalpen-zerrenda bat sortuko du, Berdintasun Zerbitzutik antolatzen ditugun ekitaldi eta jardueren berri emateko. Zabalpen-zerrendan parte hartu nahi baduzu, bidali iezaguzu Whatsapp-eko mezu bat zure izen-abizenekin eta zerrendan parte hartu nahi duzula adieraziz telefono honetara: 628 328 593.

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburak.eus

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

GUAIXEK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

Etxebizitza Saldu/Errentan.

Lokalak Saldu/Errentan.

Irakaskuntza ("partikularrak") eman.

Salmentak, erosketak eta trukeak.

Iragarkiak Guaixe paperean eta guaixe.eus-en argitaratuko dira.

Iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).

Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.



Asier Juanez Garcia pilotu altsasuarra, Olaztin lehiatuko den autoari azken ukituak ematen.

"Iazko arantza kendu nahi dugu, Rallysprinta bukatu"

ASIER JUANEZ GARCIA PILOTUA

AUTOMOBILISMOA Asier Juanez pilotua eta Josu Olmos kopilotua larunbateko Olaztiko Rallysprintean aritzeko "gogotsu" daude. 42 talde lehiatuko dira, 13:00etatik aurrera

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU
Larunbatean V. Olaztiko Rallysprinta jokatu da, Sakana Motorsport taldeak antolatuta. Lehiatuko diren 42 taldeen artean Asier Juanez Garcia 24 urteko pilotu altsasuarra dago. Josu Olmos izango du kopilotu. Lasterketa 13:00etan abiatuko da, eta partaideek lau aldiz osatu beharko dute ibilbidea, orduka abiatuta. Proba polita da, herri-gunean hasi eta Urbasako Igoerako zati bat hartzen duelako, Altamira igo eta jaitsi. Antola-

tzaileek proba jarraitzera gonbidatu dituzte sakandarrak. **Motorren mundutik zatoz, baina automobilismoa egin zenuen salto.** Motorrekin hasi nintzen, 5 urte nituela, baina joan zen urtean automobilismoan murgiltzeko

"JOSU OLMOS DA NIRE KOPILOTUA. GUTXIKA KONFIANTZA GEHIAGO DUGU, HEMEN EZINBESTEKOA DENA"

aukera izan nuen eta autoetara pasa nintzen.

Arraroa, motorzaleak oso motorzaleak izaten zaretelako.

Beno, azken finean gremioan jarraitzen dut (kar, kar...). Berdin zaizkit motorrak, autoak... gurpilak eta motorra dituzten bitartean, gustura.

Automobilismoak harrapatu zaitu? Hala motorrak nahiago?

Harrapatu nau, bai. Biekin gelditzen naiz. Joan zen urtean hiru automobilismo lasterketetan parte hartu nuen, aurtan batean

eta oso gustura ibili naiz. Dena den, hemen poltsikoak agintzen du. Dirua dagoen bitartean zaletasunarekin jarraituko dugu.

Renault Clio Sport autoa duzu.

Iaz erosi nuen autoa, apurtuta zegoela, eta konpondu genuen. Kanpotik ez genion gauza handirik egin, mekanikan aritu ginen gehienbat. Justu 2022ko Olaztiko Rallysprinterako bukatu nuen prestatzeaz. Hor mustu genuen autoa; nire lehendabiziko lasterketa izan zen.

Eta zer moduz joan zen?

Nahiko urduri ibili nintzen. Autoan arazoren bat genuen, eta asistentzia gunean ibili ginen konpontzen. Olaztiko Rallysprinteko ibilbidea hirutan egin genuen, lautan egin beharrean, pasada bat gutxiago. Gogoan dut euria hasi zela, autoa ez genuela ongi ezagutzen... Pixka bat desastrea izan zen, baina gu oso kontentu geunden. Josu Olmos nire kopilotua da, hasieratik. Orain arte egin ditudan hiru rallysprintak –2022ko Olaztiko Rallysprinta, Lesakako Rallysprinta eta 2023ko Goierriko Rallysprinta– berarekin egin ditut, 2022ko Urbasako Igoera izan ezik, igoeretan soilik pilotuek parte hartzen dugulako.

Marsuan jokaturako Goierriko Rallysprinta bukatzea lortu zenuten, lortzen handia, parte hartu zuten 54 taldeetatik 27k proba utzi behar izan zutela kontuan hartuta.

Bai, eguraldi kaxkarragatik istripu asko izan ziren eta guk bukatzea lortu genuen. Autoa probatzera joan ginen batez ere. **Aurreko asteburuan Olaztiko ibilbidea probatzeko eta notak hartzeko entrenamendu ofizialak egon ziren. Hurbildu al zineten?**

Bai. Hemengoak gara eta ibilbidea ezagutzen dugu, baina entrenamenduak egitera joateko ohitura hartu nahi dugu, pixkanaka Josu eta biok konfiantza gehiago hartzeko, bien arteko *feelinga* bilatzen. Ongi gabiltza, gutxika hobetzen. Olaztirako gogotsu gaude. Joan zen urtekoa iltzatuta dugu; ea aurtan autoa ongi doan, konfiantza gehiagorekin aritzen garen eta arantza kentzen dugun.

"OLAZTIKO RALLYSPRINTA BEREZIA DA, BIDEA HERRIKO KALEETATIK PASATZEN DELAKO"

Olaztiko Rallysprinta nolakoa da?

Niretako nahiko berezia da, duen ibilbidearengatik. Herri-gunetik pasatzen da. Tarte hori oso polita da, ez baita oso ohikoa rallysprintaren ibilbideak herrigunee-tako kaleetatik pasatzea. Horri Urbasako Igoerako zatia gehitzen badiozu, Altamirako igoera eta jaistea, ederra da. Denetarik du: igoera, jaitsiera eta herriko gunea, nahiko dibertigarria eta polita dena. Tarte hori da mantsoena, baina oso teknikoa, bidegurutze eta karriketatik barna pasatzen baita.

Mekanikaria zara, M86 motor tailerreko bazkidea, Iñaki Mugikarekin. Askok pentsatuko dute horregatik abantaila duzula.

Abantaila izan dezaket, baina denbora gutxi dut. Errementariaren etxean... badakizu. Tailer-rean ongi gabiltza Iñaki eta biok, gustura. Motorrak konpontzen ditugu soilik. Aisialdian ibiltzen naiz autoa errebisatzen eta martxan jartzen, nire kabuz. **Olaztiko Rallysprintean 42 talde eman dute izena, horietatik 5 sakandarrek. Zein da zuen helburua?** Olaztiko Rallysprinta osorik bukatzea. Horrekin pozik geundek. Ibilbideari lau pasada ematea. Ea aurtan lortzen dugun. Autoari azken ukituak eman behar dizkiogu, baina uste dut ongi dagoela. Dena den, gero lasterketetan ez dakizu inoiz zer gertatuko den.

Zein dira aurtengo denboraldiko beste helburuak?

Guretako hau *hobby* bat da, zaletasun hutsa. Ez dugu txapelketa edo koparen bat jokoan, inolako presiorik. Etxeko lasterketak egingo ditugu, ziurrenik, eta gero joango gara ikusten. Autoan denbora ematea, azken finean hori da nahi duguna.

Eguraldi iragarpenak euria egin dezakeela dio.

Badaezpada eurrarako gurpilak eraman beharko ditugu, baina ea zortea alde dugun eta ez duen euri gehiegirik egiten. Nahasmena izaten da, bai guretako eta baita ikusleendako ere, lasterketako giro aparta apaltzen duelako. Taldeei dagokienez, auto barruan aurkariak gara, baina asistentzia gunean lagun onak. **Kuadrillakoak, familia... lasterketara zuek animatzera joaten dira?** Bai, familia eta lagunak etortzen dira, eta nahiko animatzen gaituzte. Pozik gaude.

Zorte on larunbatean Olaztin! Eskerrik asko!



Eukeni Goikoetxea Larraza Nafarroako Banakako Trail Running txapelduna, pozik helmugan.

Eukeni Goikoetxeak hegan egin zuen Bargagainen

MENDI LASTERKETAK Korrikalari altsasuarra gailendu zen Bargagaingo Igoeran, alde handiz, eta Nafarroako Banakako Trail Running txapelduna da. Proba herrikoia Juan Larrea altsasuarrak eta Raquel Perezek irabazi zuten

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU Dantzaleku Sakana Atletismo Klubak igandean antolatutako Bargagain Igoera Trailean (21 km) 47 korrikalarik parte hartu zuten guztira. Lasterketa Navartrail Txapelketarako baliagarria izateaz gain, Nafarroako Banakako Trail Running Txapelketa izan zen. Proba nagusiarekin batera, 14 kilometroko lasterketa herrikoia jokatu zen.

Garaipenak, etxean Goiz ederra izan zuten bidaide korrikalariek. Foru Plazatik aterata, Bargagainera igo, eta gailurreriatik aurrera egin zuen bideak, ehiztarien bidetik Urdiainera jaisteko. Parke ondoko partzelarietatik Iturmendiraino iritsi ziren korrikalariak, Iturmenditik Santa Marinara igo, han buelta hartu eta gailurre-riatik itzuliz Urdiaingo portua

jaitsi eta partzelarietatik Altsasura heldu ziren. Proba nagusia 21 korrikalarik osatu zuten eta Eukeni Goikoetxea Larraza altsasuarra izan zen azkarrena (2:01:46) alde handiz, Elgeako Jon Vegas Lopez de Uralderi 5 minutu eta erdi atera baitzizkion (2:07:13). Jabi Gasanz altsasuarrak osatu zuen podiuma (2:07:28). Emakumezko bakarra sailkatu zen, Jaione Mendijur Lopez de Muniain, araiarra, sailkapen absolutuan 16. (2:46:39). Nafarroako Banakako Trail Running txapelduna, beraz, Eukeni Goikoetxea izan zen, Jabi Gasanz

47 KORRIKALARIK HARTU ZUTEN PARTE ALTSASUN; BERA KO MARATOI ERDIAREN ERAGINA NABARITU ZEN

eta laugarren sailkatu zen Ekhi Congil etxarriarraren aurretik. Nafarroako Txapelketako lehen-dabiziko hiru korrikalariek maiatzaren 7an Lerinen jokatu-ko den Federazioen Arteko Txapelketa Nazionalerako txartela lortu dute.

Proba herrikoia dagokionez, hogei korrikalarik despiditu zuten 14 km-ko ibilbidea, proba luzearen ibilbidearen zati bat hartzen zuena. Juan Larrea Etxeberria altsasuarra izan zen protagonista nagusia, 14 kilometroko proba ordu eta laurde-nean osatu baitzuen (1:14:34), Burgosko Gerardo Lozanori 7 minutu pasa ateraz (1:21:59). Xabier Aiestaran Rendo altsasuarra hirugarren sailkatu zen (1:23:00). Emakumezkoetan, Raquel Perez del Notario izan zen sailkatu zen emakume bakarra, 16. postuan (1:38:10).

Sakandarrak

Bargagaingo Igoera, Nafarroako Banakako Trail Running Txapelketa

Bargagaingo Igoera (24 km)

• Gizonak	
1. Eukeni Goikoetxea	2:01:46
3. Jabi Gasanz	2:07:28
4. Ekhi Congil	2:12:30
6. Ander Iraizoz	2:17:53
12. Aimar Araña	2:25:53
13. Joseba Galarza	2:31:28
15. Kepa Gordo	2:42:22
19. F. Javier Moreno	3:01:06
20. Iker Zeberio	3:04:19
21. Aritz Irigolien	3:31:39

• Emakumeak	
1. Jaione Mendijur	2:46:39

Herrikoia (14 km)

• Gizonak	
1. Juan Larrea	1:14:34
3. Xabier Aiestaran	1:23:00
4. Ioseba Iza	1:23:56
5. Ander Galarza	1:24:09
8. Jorge Iradi	1:29:34
9. Santi Galarza	1:30:13
10. Ibai Perez	1:32:22
11. Fran Araña	1:32:23
12. Asier Leiza	1:35:33
13. Asier Amiama	1:37:21
14. Ismael Lopez de Goikoetxea	1:37:37
15. Iñaki Agirre	1:37:39
17. Aritz Jaka	1:46:55
19. Ioni Araña	1:50:51

• Emakumeak	
1. Raquel P. del Notario	1:38:10

Congil bigarren Arguedasen

Apirilaren 7an Navartrail Txapelketarako baliagarria zen XXVI. Trail Al Yugo lasterketa hartu zuen Arguedasek, 22 kilometrokoa. Ioar Tabar gailendu zen (1:30:21), Ekhi Congil etxarriarria ia 3 minutu aterata (1:33:04). Felix Benjumea altsasuarra Top Tenean sailkatu zen, bederatzigarren izan baitzen (1:39:16).

Bestalde, Lloret de Marrek Espainiako Trail Running Mendi Lasterketen Txapelketa hartu zuen asteburuan. Beste Iruña taldeko Maria Ordoñez nafarrak brontzezko domina lortu zuen (1:18:19). Proban parte hartu zuen beste nafarra, Goierri Garaia taldeko Marina Zabala lakuntzarra, 33. sailkatu zen.



Beñat Katarain, Berako Maratoi Erdian, ahalegin betean. P.EZCURRA

Beñat Katarain txapeldunorde Beran

Manttaiek igandean antolatutako Berako Maratoi Erdian (21,1 km) 491 korrikalarik hartu zuten irteera. Ibilbide ederra zuten aurretik, Manttale eta Larrun mendi gogorrek tartean. Oier Ariznabarretak ez zuen areriorik izan eta bizkaitarrak bere zortzigarren garaipena lortu zuen jarraian (1:41:39). Bigarren Goierri Garaia taldeko Beñat Katarain lakuntzarra sartu zen, bikain arituta, ia 4 minutura (1:45:20). Emakumezkoetan, Ainara Urrutia alde handiz gailendu zen (2:04:36). Erkuden San Martin etxarriarra emakumezkoetan 41. izan zen (2:58:44). Sakanan harrobi bikaina dago. 10,2 kilometroko proban Jorge Diaz 12. sailkatu zen, Aimar Huizi 14. eta Madi Lizarraga 15. Eta 5,9 km-koan Victor Fernandez 3., Jon Orella 19., Aratz Mendoza 20., Saioa Zenoz 23., Kimez Arregi 24., Maidar Gorraiz 25., Aner Artieda 28.



Martin Montañes, David Malo, Elena S. de Ilurdoz eta Doris Vicente. Atzean, Mikel Ibero, Manolo Moreno, Alicia Navarro eta Aitor Larraza.

Sakanako Ibilaldian, Ochoa de Olza gogoan

MENDIA Apirilaren 25era arte eman daiteke izena apirilaren 29an Irurtzunen hasi eta bukatuko den 32. Sakanako Ibilaldia-III. Ochoa de Olza Memorialerako. Izena emate bakoitzetik bi euro SOS Himalaya lñaki Ochoa de Olza Fundaziora bideratuko dira

Maidar Betelu Ganboa IRURTZUN
Apirilaren 29an Irurtzunen Iratxok antolatuko duen martxak aurtien izen luzeagoa du: Sakanako Ibilaldia-III. Ochoa de Olza Memoriala. "Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioak proposatu zigun Sakanako Ibilaldia aurtien III. Ochoa de Olza Memoriala izatea" azaldu zuen Iratxoko mendi ataleko ardura-dun Manolo Morenok.

SOS Himalaya fundazioko koordinatzaile Elena Sagaseta de Ilurdoz "oso pozik" dago elkarlanarekin. "Sakanako Ibilaldian izena emate bakoitzeko 2 euro fundaziora bideratuko dira, SOS Himalaya Makalu bailarako Seduwa herrian jasotzen ari den ospitala bukatzeko. 20.000 biztanle dira eta ospitale gertuena egun batera dute, oinez" azaldu zuen. Sakanako Ibilaldian "parte hartze itzela" espero du.

Elkarlana bi aldetara izango da, Iratxori Sakanako Ibilaldiko hiru martxetako hornidura aurtien merke aterako zaiolako, hornidura gehiena SOS Hima-

layarekin kolaboratzen duten enpresek hartuko baitute bere gain, fundazioaren lanari esker.

Apirilaren 25era arte

Momentuz 500 pertsona inguruk eman dute izena Sakanako Ibilaldian. "Jendeak azken astera arte itxaroten du, eguraldi iragarpenak gertu izateko. Apirilaren 25era arte eman daiteke izena Iratxo Elkarte eta Zirkuitua webguneetan. Probaren egunean ezingo dela izena eman argi utzi nahi dugu" azpimarratu zuen Morenok.

1.600 kamiseta

Joan zen urtean 1.174 mendizalek parte hartu zuten guztira. "Aurtien Sakanako Ibilaldia III. Ochoa de Olza Memoriala izateak

"ZIRKUITUA SARIA JASO DUGU. SAKANAKO IBILBIDE LUZEA MARABILLA HUTSA DA"
MANOLO MORENO

partaidetza igoko duela espero dugu. Baikorak gara eta 1.600 kamiseta egin ditugu badaezpada, izena ematen dutenek opari jasoko dutena" gaineratu du.

Ildo beretik mintzatu zen Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuko David Malo teknikaria. "Ea 2019ko 1.420 partaideak gainditzen ditugun. Beste behin Iratxori eskertu nahi diogu Sakanako Ibilaldia antolatzea, hiru distantziatan, nahi duen orok parte hartzeko aukera izan dezan".

Hiru aukera

Iratxok hiru ibilbide prestatu ditu, Irurtzunen hasi eta bukatuko direnak: Sakanako Ibilaldi Luzea (54,3 km, 3.388 m desnibel +: Txurregi, EH erdigunea, Beriain, Uharte Arakil, Aralarko San Migel, Agiri, Madotz, Larrazpil, Trinitatea); Sakanako Ibilaldi Laburra (25,5 km, 1.440 m desnibel +: Etxeberri, Itxasperri, Madotz, Larrazpil, Latasa, Trinitatea) eta Ibilbide Txikia (14 km, 730 m desnibel +, etxeko txikienekin egiteko, Trinitatea,

Latasa, Plazaolako ibilbidea, Arrantzaleen xenda). Sakanako Ibilaldi Luzea Nafarroako Iraupen Luzeko Ibilbideen Txapelketan eta Euskal Herriko Mendi Martxa Luzeen Zirkuituan sartuta dago eta Nafarroako beteranoenetakoa da.

Zirkuitua saria Iratxorendako

Sakanako Ibilaldiak 2022 Zirkuitua Saria jaso du, hiru modalitateetan: ibilbidean, paisaian eta bideen zainketan, "eta oso kontentu gaude, gure lanaren aitortza bat delako. Gure ibilbidearen edertasuna azpimarratu zuten, eta hala da. Sakanako Ibilbide Luzea marabilla hutsa da. Pozteko beste arrazoi bat gehiago" zoriondu zuten elkar.

Jasangarria

Iratxokoek azken lanak dituzte aurretik: ibilbidea markatu, hornidura guneak prestatu eta laguntza emateko izena eman duten ehundik gorako boluntarioen lana lotu, "eta apirilaren 29a gaurkoa bezalako egun eguzkitsu bat izatea espero". Beti bezala, ingurunea babestea da beste ardatzetako bat, "ibilbide jasangarria izatea. Hornidura gune guztietan zaborra birziklatuko da. Joan zen urtean 3.000 edalontzi birziklagarri erabili genituen eta soilik 50-60 faltatu ziren, jendeak ongi erantzun zuen". Halaber, markatutako bideetatik joateko deia egin zaie mendizaleei, paisaia zaintzeko.

Ochoa de Olza Unanun gogoan

Iñaki Ochoa de Olza mendizalea 2008an zendu zen Annapurnan. "Aurtien 15 urte beteko dira, eta maiatzaren 21ean Unanun bildu eta 8:30ean Beriainera igoko gara. 12:30ean ekitaldi xumea egingo dugu Beriango bere monolitoan. Bitartean, bere borondatea aurrera ematen jarraitzen dugu 2009an sortutako fundazioaren bitartez: Himalayan proiektu humanitarioak sustatzea, euren bizi kalitatea hobetzeko" azaldu zuen Sagaseta de Ilurdozek. Ildo honetan, Fundazioko kideek sentsibilizazio jardunaldia eskaini zuten oste-gunean Atakondoa ikastetxean, "Iñaki Ochoa de Olza nor izan zen azaltzeko, SOS Himalaya Fundazioak Himalaian egiten duen lana gizarteratzeko eta hemengo eta Nepalgo bizimoduaren ezberdintasunak agerian jartzeko, handiak baitira".



"Memoriala balioan jarri nahi genuen"

MARTIN MONTAÑES
MENDI FEDERAZIOA

Sakanako Ibilaldia-III. Ochoa de Olza Memoriala izatea Nafarroako Mendi Federazioaren proposamena izan zen. Zergatik?

SOS Himalaya Fundazioak aurretik bi mendi martxa antolatu zituen bere kabuz, baina konturatu ginen hobe zela Memoriala Nafarroan dauden martxetan txertatzea beste martxa berri bat sortzea baino. Aurtien Sakanako Ibilaldia Ochoa de Olza Memoriala izango da, eta datozten urteetan beste martxa batek hartuko du lekukoa, Nafarroako martxa guztietatik pasatzeko. Horrek balioa emango die martxari eta baita fundazioari ere, bere lana behar bezala gizarteratzeko.

Zenbat federatu ditu egun mendi federazioak?

Oraintxe 13.068 federatu gara. Irailean ere gora egiten du, eskalada eskolak hasten direnean. Joan zen urtean 14.394 federaturekin itxi genuen, ea aurtien nola.

Mendi lasterketekin ere kontentu zaudete.

Oso pozik. Espainiako Mendi Lasterketen Txapelketan, Cordoban, Naiara Irigoien txapeldunordea izan zen, Ainara Alcuaz 8., Uxue Fraile 16. (lehen beteranoa) eta gizonetan Alvaro Ramos 20., Xabier Zarranz 23. eta Iñigo Macias 35. Aimar Azpiroz promesetan eta Markel Barrio kadeteetan txapeldunak izan ziren eta Beñat Albisu 7. jubentzetan. Emaizta bikainak.

"Horren urruti iritsiko ginenik ez genuen espero"

ANE BERAŠTEGI JAKA TXIRRINDULARIA

PISTA TXIRRINDULARITZA Ane Berastegi Jaka eta Siets Goikoetxea Garde sakandarrak Espainiako Pista Txirrindularitza Txapelketako taldekako jazarpen txapeldunak dira

Maidar Betelu Ganboa ARBIZU / URDIAIN

Aste Santuan Espainiako Pista Txirrindularitza Txapelketak jokatu ziren Galapagarren. Sergio Aliaga hautatzaileak 11 txirrindulari hautatu zituen hitzordu garrantzitsurako, tartean bi sakandar, Ane Berastegi Jaka arbizuarra eta Siets Goikoetxea Garde urdiaindarra, biak kadete mailakoak eta Tafallako Beratxa taldekoak. Nafarroako selekzioak txapelketako balorazio ezin hobe egin du, guztira hamar domina lortu dituelako: urrezko domina, zilarrezko bost domina eta brontzezko lau domina. Urrezkoa eta zilarrezkoa lortu dute Berastegik eta Goikoetxeak, taldekako jazarpen proban eta taldekako abiadura proban egindako primerako lanarengatik. Maila indibidualen ere sekulako maila eman dute. **Sekulako lana egin duzue Espainiako Pista Txirrindularitza Txapelketetan.**

Bai, bina domina ekarri ditugu Siets Goikoetxeak eta biok. Taldekako jazarpen proban Espainiako txapeldunak izan ginen, Irene Bonarekin eta Marta Pelayorekin laukotea osatuta, eta taldekako abiaduran bigarren gelditu ginen, Espainiako txapeldunordeak Irene Bonarekin hirukotea osatuta.

Podiumaren gorenean egotea espero al zenuten?

Aurretik lan handia egin dugu, entrenamendu asko. Espainiako Txapelketetan ahal genuen guztia lortzea zen gure helburua, baina, egia esan, horren urruti iritsiko ginenik ez genuen espero. Eta oso pozik gaude guztiak. Baita Sergio Aliaga hautatzailea ere. Oso lan polita egin dugula esan dugu.

Marsuaren bukaeran Palman jokatutako Espainiako Omnium eta Madison Txapelketan hirugarren postua defendatzen ari zinelako erorikoa izan zenuen, eta argi dago berehala eman zeniola buelta.



Ane Berastegi eta Siets Goikoetxea, eskuinean, garaipena ospatzen. UTZITAKOA

"AURRETIK PISTAN LAN HANDIA EGIN DUGU. ERREPIDERAKO SENTSazio ONEKIN GAUDE ORAIN"

Bai, kanporaketa proban erorikoa izan nuen, baina, zorionez, sustoa izan zen. Urradurak izan nituen, baina ezer larririk ez. Pistako lurzoru horretan urradurak eta erreduarak egiten dira, eta maillotak apurtu (kar, kar). Egia esan, min handia hartzen da. Zurezkoetan, gainera, ezpal txikiak sartu ahal zaizkizu. Baina, ez nuen ezer larririk izan. **Nolakoa da taldekako abiadura proba?**

Siets, Irene eta hirurak batera atera ginen pistara. Lehen txirrindulariak lehen bira bukatzen duenean bere atzetik datozen beste biekin pasatzen uzten die, erreleboa emanez, eta honela azkeneko itzulia txirrindulari bakarrak bukatzen du. Bakoitzak bere buelta topera egin behar du. Eta denbora hoberenak irabazten du, selekzio azkarrenak. Guztira hamabi itzuli ziren.

Eta taldekako jazarpenean zer egin behar duzue?

Kasu honetan lau ginen, Irene-ekin eta Martarekin batera. Bi talde elkarren kontra aritzen dira. Talde bat helmugatik ateratzen da eta bestea kontrako puntutik. Gure artean erreleboak egiten goaz, 12 itzuli egin arte, eta denbora azkarrena egiten duen taldeak irabazten du.

Zein selekzio gaituzten zenituzten? Kataluniako eta Madrilgo selekzioak.

Kataluniako selekzioa pistan oso ona da, eta baita Madrilgoa ere. Eguneako sorpresa izan al zineten? Bai. Kataluniako selekzioan Beratxa taldeko gure taldekide bat zegoen, eta eurekin hitz egin genuen. Zoriondu gintuzten eta asko poztu ginen.

Sietsek aurretik azaldu izan du bata bestearen laguntza behar duenean horretarako zaudetela. Espainiako Txapelketetan ere hala izan da?

Bai. Pista txirrindularitza talde lana da, eta guztiek ahal duguna eman behar dugu. Eta talde lan horri esker bi domina polit lortu ditugu.

Zer duzu nahiago, errepidea hala pista?

Oso ezberdinak dira. Biak oso gustuko ditut, baina agian errepidea pixka bat gehiago. **Zer du pistak horrenbeste erakartzeko?**

Errepidean jende gehiago dago animatzen eta paisaia gehiago ikusten dituzu. Pistan, aldiz, denbora guztian toki berean bueltaka gabiltza, baina badu ere bere xarma. Hasieratik bukaerara, uneoro, kontzentratuta egon beharra dugu, eta pistan beti topera egon beharra duzu. Eta hori ere polita da. Errepidean adi egon beharra dago, baina tarteka atseden uneak daude.

Pista denboraldia bukatu da, baina jada errepideko denboraldia hasia dago. Kadeteen mailan Beratxa taldean Siets, Ane Beltran de Heredia eta hirurak zaudete, eta Lacturale Ermitagañan June Etcheberria eta Bakarne Arregi. Sakandar talde polita.

Oso kontentu nago sakandar talde ederra dugulako kadete mailan. Orintxe hasi dugu denboraldia, baina sentsazio onekin gaude. Ea horrela jarraitzen dugun. Helburua ongi pasatzea eta ongi ibiltzea da, ahal duguna ematea.

Sakandarrek garaipenen bat lortzeko aukera ikusten al duzu?

Saiatuko gara. Ea lortzen dugun. **Lasterketa kuttunen bat al duzu?**

Une honetan Espainiako Kopan lehiatzen ari gara, eta postu hoberena lortzea da helburua. Espainiako Txapelketara joatea ere ederra litzateke. Ea lortzen dugun, baina oraindik asko falta da. Espainiako Kopan bi lasterketa jokatuko ditugu eta asteburuan hirugarrena jokatuko dugu, Leonen.

A ze martxa daramazuen. Galapagar, Palma, Pontevedra... oso urruti dituzue lasterketak.

Bai, azkenean asko mugitzen gara eta gurasoek gu ikusteko ere handik hona ibili beharra dute.

Baina gustuko tokian aldaparik ez. Horrela da, bai (kar, kar).

Sietsek eta biok Espainiako txapeldunak zaretela ospatu al duzue?

Egia esan, oraindik ospatzeko dugu, baina egutegia beteta dugu. Ea uda aldera ospatu ahal dugun. **Sakanan lasterketaren bat izango al duzue?**

Bai, ekainaren 24an, San Juan egunean, Lakuntzako Emakumeen Lasterketa jokatuko da, Sakanan emakumeendakodagoe txirrindularitza proba bakarra. Gustura parte hartuko dugu.

Bizikletari lotutakoak, laburrean



Garcia de Eulate, ezkerrean.

Garcia, txapeldunorde

Igandean VIII. Vianako Printzerriko Duetloia jokatu zen, Distantzia Erdiko Nafarroako Txapelketa (15 km-75 km-9,5 km). Sergio Garcia de Eulate altsasuarra 9. sailkatu zen (3:35:11), bigarren nafarra, eta, beraz, txapeldunordea.



Mintegi, Balenciagan. LABORAL K.

Mintegi, lider

Duranako lasterketan laugarren izan zen altsasuarra. "Lasterketa oso ongi kontrolatu dugu: Laboral Kutxako Nicolas Alustiza taldekideak irabazi du, eta ni Euskaldun Txapelketako lidergoa sendotzen ari naiz. Pozik".



Arrieta, Itzulian. KERN PHARMA

Arrieta, osatzen

EH Itzulian lan ederra egin eta gero, Tour du Juran zortzigarren sailkatu zen Kern Pharmakoa, baina helmugako portua jaisterakoan erori zen, eta aurpegian izandako hainbat hausturaz osatzen ari da uharte arakildarra.

FUTBOL PREFERENTEA

28. JARDUNALDIKO EMAITZAK	
Aurrera - Altsasu	0-1
Etxarri Aranatz - Salesianos	3-0
Beti Casedano - Lagun Artea	2-1

SAILKAPENA	
PREFERENTEO 1. MULTZOA	
1 Amigo	62
11 Altsasu	39
17 Etxarri Aranatz	20
18 Lagun Artea	13

HURRENGO JARDUNALDIA	
APIRILAK 23, IGANDEA	
16:00 Altsasu - Beti Casedano (Dantzaleku)	
16:30 Lagun Artea - Ilunberri (Zelai Berrí)	
18:15 Univ. de Navarra - Etxarri (Universidad)	

Altsasuk Beti Casedano aurkari
Aurrerari irabazi eta gero, Lagun Artea mendean hartzetik datorren Beti Casedano hartuko du Altsasuk igandean Dantzalekun.

Etxarri gogotsu dago
Azkeneko puntuak oso ongi etorriak dira Etxarrin, laugarren den Universidad de Navarrari aurre egiteko primerakoak.

Lagun Arteak Ilunberri hartuko du
Azken postuari iltzatuta jarraitzen dute lakuntzarrek. Igandean sailkapenean hamalagarren den Ilunberri hartuko dute.

EMAKUME PREFERENTEA

KOPAKO 4. JARDUNALDIKO EMAITZA	
Amigo - Altsasu	1-0

SAILKAPENA	
EMAKUMEEN KOPA AUTONOMIKOA.	
1 Amigo	9
8 Altsasu	3

HURRENGO JARDUNALDIA	
APIRILAK 22, LARUNBATA	
16:00 Castejón - Altsasu (Castejón)	

Altsasuk Kopako bosgarrena jokoan
Kopa Autonomikoko bosgarren jardunean Altsasuk Castejónen jokatu du.

FUTBOL ERREGIONALA

234 JARDUNALDIKO EMAITZA	
San Jorge - Altsasu B	5-2

SAILKAPENA	
ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA	
1 Beti Onak B	63
12 Altsasu B	19

HURRENGO JARDUNALDIA	
APIRILAK 23, IGANDEA	
18:30 Altsasu B - Zizur (Dantzaleku)	

Altsasu B-k Zizur hartuko du
Sailkapenean ondoan dauden bi taldeen arteko lehia jokatu da Dantzalekun.

Ezkurdiak Dario hobe ikusten du

PILOTA Buruz Buruko final laurdenetako ligaxkako bigarren jardunaldian arbitzuarrak errioxarra izango du aurkari ostiralean Gasteizen jokatu den partidari. Promozioan, Joanes Bakaikoak garaipenarekin ekin dio ligaxkari

Maidar Betelu Ganboa ARBIZU
Buruz Buruko final laurdenetako ligaxkako lehen jardunaldia irabaztetik datozen Joseba Ezkurdiak eta Dario Gomezek elkarren kontra jokatu dute bigarren jardunaldian, ostiralean Gasteizko Ogetan 21:00etan hasiko den jaialdian.

Dariok Peio Etxeberriari irabazi zion lehen jardunaldian, eta Ezkurdia, oraindik %100ean ez badago ere, Erik Jakari nagusitu zitzaion. Arbitzuak onartu du ez dagoela oraindik guztiz ongi, eta Dario hobe ikusten du. "Dariok buruz buru asko jokatzen du, ikaragarri, eskuin indartsua du, fisiko ona eta defentsa ona. Gauzak oso ongi egin behar dira berari irabazteko. Ni nirea egiten saiatuko naiz, badakit partida zaila dudala aurretik, Dariok Etxeberriaren kontra jokatutako partidari ikusi zelako erritmo handian jokatzen duela, partida gogorrean. Ni oraindik ez nago fisikoki puntu-puntu, baina



Dario eta Ezkurdia, Ogetako material aukeraketan. EITB

ea nire lana ongi egiten dudan eta, behintzat, Darioren kontra borrokatzen dudan".

Promozioan, Bakaikoa ongi
Promozioko Buruz Burukoan final laurdenetako ligaxka ongi

hasi du Joanes Bakaikoak, 22 eta 19 irabazi baitzion Zubizarretari larunbatean Labriten jokatutako partidari. Apirilaren 28an jokatuko duen bigarren jardunaldian Eguiguren izango du aurkari, Baños del Río Tobiasen.

Narum CBASK-ek Lauko Finalean sartzea du jokoan

SASKIBALOIA Humiclimaren kontrako itzulerako partida jokatu du talde altsasuarrak larunbatean Zelandin

Bigarren Maila Interautonomikoan Lauko Finalean sartzeko sailkapen fasean dago murgilduta Narum CBASK taldea, eta, momentuz, gauzak oso ongi doazkio, lehen jardunaldiko joaneko partidari Berrioizarko Humiclima taldearen aurrean garaipen oso garrantzitsua lortu baitzuen, 78 eta 89 gailenduz. Larunbatean, apirilak 22, itzuliko partida jokatuko dute bi taldeek Zelandin, 17:50ean. "Larunbatean Zelandi Interautonomikoko Playoffeko partida erabakigarria hartuko du. Joanekoan gure mutilek Hu-



Asko du jokoan Narum CBASK-ek. CBASK

miclima mendean hartu zuten (78-89) eta etxean irabaziz gero, Final Fourrerako sailkatuko dira" azaldu du CBASK-ek sare sozialetan. Zaleen babesa eskatu du CBASK-ek, partida zaila duelako aurretik.

Azken txanpan
Emakumezkoen Lehen Senior Mailan, 9. eta 12. postuak erabakitzeke azkeneko faseari ekingo dio aurki CBASK Xabi Gorritz Tattoos taldeak, 9. eta 15. postuen sailkapen faseko azken jardunaldian Valle de Egüesi 64 eta 60 irabazi eta sailkapenean hiru garren sailkatu eta gero. Lehen Senior Mailako 9. eta 12. postuak erabakitzeke azkeneko faseko lehen jardunaldian talde altsasuarrak Navasket SF old taldea hartuko du apirilaren 29an, 17:50ean, Zelandin.

AIZKORA Aizkolari sakandarren hitzordu bikoitza

Asteburuan hitzordu bikoitza dute Sakanako aizkolariek. Batetik, Urrezko Aizkolarien Banakako Txapelketako kanporaketari jardunaldia jokatuko da igandean Aian, 12:00etan. Gaztetxo mailan, 18 urtez azpian zazpi aizkolari lehiatuko dira, tartean Amets Aristizabal urdiaindarra eta Joan Goikoetxea etxarriarra. Markel Kortina, Javi Muñoz, Kimez Oñederra, Unai Etxeberria eta Igoien Pikabea izanen dituzte aurkari, eta lehen lortuko dute aurrera egitea.

Bestalde, Etxarri Aranatzek Sakanako Aizkolari Txapelketa hartuko du igandean 13:00etan. Bikoteka Jauregi-Iker Gorriti, Iban Resano-Goizeder Beltza eta Kortxero-Juanjo Erdozia lehiatuko dira. Mistoetan, Jon Erdoziak Maika Aristegirekin osatuko du bikoa eta Aritz Oiarbidek Beatriz Tancorekin. Eta, tartean, Sakanako Harri jasotze eskolako Aitor Oiarbidek eta Alvaro Zugarrondok erakustaldia egingo dute harriekin.



Garikoitz Flores. UTZITAKOA

AUTOMOBILISMOA Igoera, Garikoitz Floresendako

Larunbatean III. Ioar Igoera jokatuko zen Torralba del Rion, 3,9 kilometroko mendi igoera. Lasterketan 24 pilotuk parte hartu zuten. Sakana Motorsporteko Garikoitz Flores Aristorena (Talex M3) lakuntzarrek eta Doneztebeko Andoni Blas Arzelusek (SpeedCar GT1.000) lehia bizia izan zuten baina azkenean Flores gailendu zen (2:08.207), Blasi ia 4 segundo ateraz (2:12.031).



Idazlearekin elkarrizketa

Apirilaren 23an Liburuaren Eguna izanen da eta Altsasuko Liburutegiak Liburuaren Astea antolatu du egunotan. Tartean Izaskun Etxeberria Zufiarre 'Esaten ez den guztian' liburuaren idazle altsasuarrarekin solasaldia izan zen asteartean. Gainera, Saharako liburutegien inguruko erakusketa, ipuin kontaketa eta hitzaldia eta LiterARTE jaialdia izan dira.



BAZTERRETIK

HODEI ALEGRE GIL

Doinu berriak

Azken bolada honetan Euskal Herrian berritasun doinuak nabariak dira, eta erdi-erdian Nafarroako eszena dugu. Urte batzuk lotan zirudien eszena indar berriturik loratu da gure artean. Horietan zer esan asko daukate azken aste hauetan Tatxers eta Ibil Bedik argitaratu dituzten lanek.

Iruñerriako Tatxers taldeak disko berria plazaratu du, taldearen izen berdinez deitua. Lehenago lan bat ere argitaratua zuten, eta disko honetako lehenengo akordeekin kanta jakin gabe sikiera jakinarazten dizute Tatxers entzuten ari zarela. Gitarra garbiz beteriko kantak, hamarkada batzuk atzera eginda Zarama edo Itoiz gogoratzen dutenak. Gitarraren distortsioetik at garbitasunean punk-rocka, bi abeslarien ahotsak eta bateria ahaz.

Doinu lasaiagoekin Ibil Bedik disko berriko aurrerapena eskaintzen digu. Aurreko lanen ildo jarraitzen duten arren beste kutsu bat dute kantek.

Sentimenduz beteriko kantak dira berriro, bizitza arrosaz beteriko bide bat ez dela erakusten dutenak, gaur egungo gizartearen gabezia emozionalak, edonork pairatzen ditugun egoerak. Melodia lasai eta garbiekin lan berriak zer esan handia izango du, ea oraingoan ze kantekin aurkeztuko duten beraien burua.

Lan berria aurkezten duten bi talde horietaz gain, Nafarroako eszena musikala oso anitza da. Iruñerriko Skabidean aipatu dezakegu, beraien rocksteady erritmoekin eszenari beste ikuspuntu zabalago bat eman diotenak. Han inguruko Sofokaos ere, rock erritmo eta letra landuekin azken disko oso txukuna plazaratu zutenak. Eta Olaia Inziarte aipatu gabe ezin nuen amaitu, Durangoko Azokan aurkeztu zuen lehen lanarekin Euskal Herri osoa bere doinuetara dantzan jarri duena. Beraien bidea egiten ari diren beste talde batzuk badira, urte batzuen buruan ikusiko ditugunak.

Sormenaren magia

1992. urtean ireki zuen Koldo Arnanz artista altsasuarrak izen bereko arte tailerra, eta lehenengo erakusketaren 30. urterrenean hiru hamarkadetako ikasleen lanekin erakusketa mustu du lortia kultur gunean

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU
Orri, mihise edo kartoi txuri bat hartu eta sormenaren bidez, ideien bidez, zerbait ukitzailea sortu. Artelan bat sortu. Hori da artearen magia Koldo Arnanz Zufiarre artista altsasuarrak azaldu duenez, "eta lan hori zurea da, gogobetetze hori hor dago ere". Hiru hamarkada pasa dira arte tailerraren lehenengo erakusketa egin zuenetik, eta urte hauetan arte ikasleek sortu dituzten lanekin erakusketa "berezia" mustu zuenatzo, apirilaren 20, Iortia kultur gunean: *Koldo Arnanz tailerra: 30 urtez artearen magiapean* erakusketan. Erakusketa maiatzaren 21era arte ikusgai izanen da erakusketa aretoan.

Delineatzaile ikasketak, Iruñeko ogibide eskolan arte eta dekorazioa eta Leioan Arte Ederrak ikasketak egin ondoren, Arnanz Altsasuko Iñigo Aritza ikastolan plastika ikasgaia ematen hasi zen. Hamaika urtez aritu zen ikastolan irakasle: "buruari bueltak ematen hasi nintzen irakas-kuntza ofiziala den bezalakoa delako eta nahiko mugatuta nengoen nik eman nahi nuenerako". Ikasle talde handiak ziren eta denetarik zegoen arren, plastika gustatzen zitzaientzen eta gustatzen ez zitzaientzen, artistak asko prestatzen zituen klaseak, baina emaitza "txikiagoa" zen.

1992an arte tailerra irekitzea erabaki zuen. "Lokal bat nuen eta akademia jartzeko baliatu nuen". Ikasleek egindako lanen lehenengo erakusketa akademia sortu eta urtera egin zuen, 1993an. "Oso gustura egon naiz. Oso baikorra izan da niretako eta suposatzen dut jendearendako ere izan dela". Urtez urte, "ia konturatu gabe", 30 urte pasa dira. "Oso pozik nago egindako lana-

rekin". Dena dela, efemeridea ez da agur bat, "ez naiz jubilatzen. Jendeak galdetzen dit ea jubilatuko naizen eta egia esan ez dut planteatu ere egin. Agian lau urtetan beste gauza bat esango nuke, baina orain ez".

Arte tailerraren lehenengo erakusketaren 30. urteurrenako erakusketa "desberdina" antolatu du Arnanzek. Urtero maiatza edo ekainean ikasturtean zehar egindako ikasle bakoitzaren "hiru edo lau" lanen erakusketa egiten du arte tailerrak, baina aurten hiru hamarkadetan "helduek" sortutako artelanen erakusketa egin du, baita haur eta gaztetxoek egindako lanen erakusketa ere.

Artelanak

"Ezinezkoa" da arte tailerretik pasa diren artisten zerrenda egitea. "Helduen taldeetatik 130 bat pertsona pasatu dira, baina gazteena ezin izan dut egin talde asko izanen direlako". "Politena" guztien lanen erakusketa egin izana izango zela aipatu du Arnanzek, "baina ezinezkoa litza-teke". Hortaz, helduek arte tailerrean egindako lanetatik bat aukeratu zezaten proposatu zien, "gehien gustatzen zitzaiena edo edozergatik interesatzen ziena". Guztira, mota, estilo eta teknika guztietako ia 90 koadro erakusgai daude.

Artelanak erakustea "pozgarria" da arte ikasleendako, gehien bat helduendako. "Gaztetxoek agian ez diote horrenbeste ga-

**"SORTZEN DUZUN
LANA UKITU DAITEKE
ETA ZUREA DA,
ASEBETETZEN
ZAITU"**

rrantzia ematen, baina helduak oso baloratuak sentitzen dira, bere lana Iortian ikusten delako eta edozeinek ikusi dezakeelako".

Koldo Arnanz arte tailerrak ikasle "fidelak" ditu: "Badira sei urterekin hasi ziren gaztetxoak, eta 22 edo 23 urterekin oraindik etortzen jarraitzen dutenak". Helduen artean ere beteranoak daude, badira tailerrean hogeit edo hogeita bi urte daramatzatenak. Marrazketa artistikoa eta pintura ez ezik, "kasu espezifikoendako" ere marrazketa tekniko klaseak ematen ditu Arnanzek.

"Nik eman ahal izan dudan guztia eman diet, eta haiek niri asko irakatsi didate ere. Elkarrekiko irakaspena izan da. Irakaskuntzaren onena da: zuk ematen duzu eta haiek ematen dizute". Ikastolan izandako esperientziarekin ere "asko" ikasi zuela esan du Arnanzek, "eta hau beste esperientzia bat izan da". Mendira margotzera joan dira eta, bereziki, sormena landu du gaztetxoekin.

Sormena

Gazteak "kreatiboagoak" direla esan du artistak: "Proposamenak ematen dizkiezu eta ideia zaparrada bat dute. Ausartagoak dira eta ez dute beldurrik". Sormena "hor dagoen" zerbait da "eta txikitatik lantzen baduzu garatzen joaten da". Arte tailerretik pasa diren hamabi bat artistek arte ederrak ikasi dute, eta diseinu grafikoa eta antzeko ikasketak egin dituztenak edo egiten ari direnak ere daude. "Haien lanak ikusten ditut eta harrituta gelditzen naiz, oso onak dira. Pentsatu nahi dut zerbait emango niela. Bakoitzak bere sormena badu, baina zerbait eragingo nuen

ere". Margotzea eta marraztea gustatzen zaionarendako eta disfrutatzen duenarendako artearen mundua "zabala eta handia" dela dio Arnanzek.

Helduen artean ahalmen handia duten artistak daude. "Ikusi dut eta konturatu naiz badela jendea bere garaian, gaztetan, akademia batera edo arte ikasketak egiteko aukera izango balu, artista oso onak izango litzatekeela". Baina beste garai batzuk ziren, arte ederrak ikasketo aukera gutxi zeuden, eta ikasketak ere ez zituen edozeinek egiten, "are gutxiago arte ederrak".

Klaseak arratsaldetan ematen ditu Arnanzek; haur eta gazteek, 17 urtera arte gutxi gorabehera, astean behin edo bitan ordu bateko saioak egiten dituzte eta helduen kasuan bi orduko saioetan, astean egun bat edo bi. Talde bakoitzean hamar bat pertsona egoten ziren, baina azken aldian talde txikiagoak egiten hasi da, "lasaiago egoteko".

Ikasturtearen hasieran ikasturtean zehar jarraitzeko programazioak prestatzen ditu eta horien bidez teknika, estilo eta material desberdinak ezagutu eta erabiltzen ikasten dute gazteek, sormena ere lantzen dute. "Haien sormena ateratzeko lan asko proposatzen dizkiet, haien barruan dutena ateratzeko". Esaterako, aurten Gernika landu dute eta ikasturtean zehar ikasten joan diren teknikak haien lanetan integratzen joan dira

"ARTE TAILERREAN BADIRA 22 EDO 23 URTEKO GAZTEAK SEI URTEREKin HASI ZIRELA"

"GAZTEEI HAIEN SORMENA ATERATZEKO ETA LANTZEKO LAN ASKO PROPOSATZEN DIET"

"ERAKUSKETA BEREZIA DA, HELDUEN TALDETAN 30 URTEETAN SORTUTAKO LANAK DAUDE"



Koldo Arnanz Zufiaurre artista 'Koldo Arnanz tailerra: 30 urtez artearen magiapean' erakusketan.

eta norberaren lanak sortu dituzte. "Baina ezin izan dute Picassoren koadroaren kolore tetricoa edo iluna erabili. Interesatzen zitzaizen zatiak haien konposizio propio bat bihurtu behar zuten, kolorearekin jolas-tuz". Proposamen asko atera dira, "oso gauza interesgarriak". Arnanzek norberak behar duen tartea uzten die lanak egiteko, "ez diet entrega data bat jartzen", eta bakoitzak behar duen sortze prozesua garatzen du. "Batzuek bozetoak egiten dituzte, beste batzuek ez...".

Helduen taldetan marrazketa-ekin hasten da. "Saiatzen naiz marrazketan ahal duten guztia ikasten. Hor bai mugatzen naitela bakoitzaren gogoen eta interesen arabera modu ludikoan etortzen direlako". Batzuk marrazketa teknikak ikasten hasten dira, "eta bi edo hiru urtez egon daitezke", grafito, ikatz-ziri, pastelak eta abar eta gero "kolorean sartzen" dira. Beste batzuk, aldiz, margotzeko helburuarekin joaten

dira eta zuzenean margotzen hasten dira, "baina marrazketa pixka bat lantzeko esaten diet, proportzioen, perspektiba eta horrelakoen ikuspuntua har dezaten".

Helduak margotzen hasten direnean olio da gehien erabiltzen dutena. "Normalean olioan egin nahi dute baina beste teknika batzuk ezagutzen dituztenean, akrilikoa, esaterako, garbiagoa eta azkarragoa dela, aldatzen dira". Orokorrean, zenbait teknika lantzen dituzte. "Adierazteko abanikoa hain anitza da bakoitza eroso sentitzen denarekin aritzen dela". Normalean beste irudi batean begiratuta margotzen dute, eta Arnanzek argazkiak aukeratzea gomendatzen die. "Hasieran modeloa marrazten dute, eta gero pixkanaka eta kolorearen magia ezagutuz joaten direnean eta nahasketak egiten hasten direnean, egingakoaren gainean koloreak lantzen hasten dira eta ez dute kopia zehatza egiten".

Koldo Arnanz arte tailerrera Sakana osotik jendea doa, baita Arabako Lautadatik ere, Asparrenetik eta Aguraindik doa jendea. Gaztetxoan artean ez da nabaria, baina helduen taldeetan emakumezko gehiago daude gizonetzkoak baina, "bederatzi emakumetik gizon bat izango da gutxi gorabehera". Gizonak pixkanaka geroz eta gehiago direla dio artistak.

"Batzuetan margotu bitartean festa handiak egiten ditugu; urtebetetzeak direnean eta abar oso ongi pasatzen dugu tailerrean". Autoestimuan lagundu dezake arteak ere. "Obra lantzen ari zaren bitartean momentu lasaiak dira eta behin amaituta ikusten duzunean asebetetzen zaitu".

Artista

Arnanzek klaseak arratsalde izatea planteatu zuen goizak "libre" izateko. "Noizbait eskatu izan didate goizez klaseak ematea, baina nire sortzeko dinamika aldatuko zidan". Goizetan

bere sortzeko tailerrera joaten da, klaseetatik deskonekatzen du, "hori ere ona dela", eta bere lanak eta pinturak sortzen ditu. Obra horiekin erakusketak egiten ditu.

Serieak lantzen ditu Arnanzek eta azkena *Keinu bat iragan industrialari* izan zen. "Txikitatik lantegi zaharrekiko interesa izan dut, liluratuta gelditzen nintzen". Esperientzia horretatik sortu zuen ondare industrialaren inguruan egindako obrak. Teknika mistoa da eta espresionismoa eta errealismoa nahastu ditu. Aurretik Castillo Suarezen poesiarekin eta Juan Miguel Arzelusen musikarekin batera *Mugarri Estaliak* proiektuan parte hartu zuen, idazle altsasuarraren poesiei irudiak jarritz.

"Momentu honetan ikertzen ari naiz, gauzeekin apurtzen eta transformatzen". Bere esperientziak hartu ditu prozesu berrian sartzeko, eta bere beste zaletasun batekin uztartzen ari da sortze prozesua: mendizaletasuna.

"Eguzki plaken bidez energia ekoizten dugu"

Lakuntzako zortzi auzokideko eraikin batean eguzki plakak jarri dituzte, energia komunitatea sortzeko. Fernando Bergara Marturet sustatzailea izan zen, eta hartutako erabakiarekin pozik, prozesuarekin "berriz" hasiko litzateke

Erkuden Ruiz Barroso LAKUNTZA

1 Nola erabaki zenuten energia komunitatea sortzea?

Modu pertsonalean eguzki plakekin interesa nuen. Mendian etxe bat genuen eta elektrizitatez zegoenez eguzki plakak jarri genituen, eta etxean modu partikularrean jartzeko begiratzen hasi nintzen. Baina bakarrik jartzeko inbertsioak ez zuen konpentsatzen. Egun batean auzokideekin hitz egitea pentsatu genuen. Gure artean harreman ona dugu, eta konfiantza gehiago dudana eta horrelako gaiekin interes gehiago duen auzotar bati komentatu nion. Baiezkoa esan zidan. Zortzi auzokideetatik bostek interesa agertu zuten. Beste hirurei zenbait arrazoi ez zien konpentsatzen. Niretako bakarrik nuen aurrekontua bost auzotarrendako eskatu genuen. Elementu komun asko daude: plakaren bat gehiago jarri behar zen eta inbertsioa pixka bat handiagoa zen, baina diferentzia oso txikia zen.

2 Noiz jarri zenituzten?

Prozesu guztia duela urte eta erdi inguru hasi genuen. Ekain aldera instalatzaileari baiezkoa eman eta hiru hilabetetan instalatuta zegoen. Gehiago kostatu zitzaiguna Iberdrolarekin lotura izan zen, baimena, produkzioa sartzeko kontadorea jarri eta abar. Funtzionatu zuen lehenengo eguna Santa Luzia eguna izan zen, urteko egunik motzena. Energia ekoizten eta fakturan ikusten hiru hilabete daramatzagu. Ekoizleak gara eta merkaturatzailearen arabera fakturan modu batera edo bestera konpentsatzen dizute.

3 Zer esan nahi du energia ekoizle izatea?



Fernando Bergara Marturet Lakuntzako energia komunitate bateko sustatzailea.

Eguzki plaken bidez guk energia ekoizten dugu, ez dugu metatzen. Produzitzen dugun guztia sarera eramaten dugu, kontadore bat dago, eta bost bizilagunek modu berean parte hartzen dugu: momentuoro ekoizten den energiaren %20 bizilagun bakoitzari dagokigu. Konpentsazio automatiko bat da; norberaren kontadoreak badaki zenbat kontsumitzen dugun, orduan kontsumitzen dugunetik ekoizten duguna kentzen zaio. Gehiago kontsumitzen badugu diferentzia kobratzen dizute eta gutxiago kontsumitzen badugu, diferentzia ordaintzen digute, nolabait esateko.

4 Zenbat eguzki plaka dituzue?

27 edo 28. Guztira, hamar kilowatta ekoizten ditugu.

5 Elektrizitate fakturan nabaritu duzue?

Azken bi fakturretan, potentzia terminoa, kontadorearen alokairua eta gauza horiek alde batera utzita, kontsumoaren aldetik

hirutik bi konpentsatzen dugu. Hemendik udara arte, eguzki ordu gehiago daudenez, gehiago nabaritutako dela uste dut.

6 Zenbatekoa izan da inbertsioa?

Auzokide bakoitzarendako 3.000 euro baino gutxiagokoa izan da. Horretatik pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren (PFEZ) kenkaria dugu, gehienez %20. Dirulaguntzak ere badaude. Ez dakigu zehazki zenbat izango den, baina guztira 12 milioi euro daude. Gehienez 600 euro kW-orduko da eta honek hamar kW-orduko ditu. Beraz, gehienez 6.000 euro dagozkigu. Ikusiko dugu zer datorren. Instalatzaileak aipatu zuen lau urtetan inbertsioa berreskuratuko dugula.

7 Nola bizi izan duzue prozesua?

Ilusioarekin, gogoarekin... Auzotar guztiak ados jarri behar ginen, proiektuan parte hartu nahi genuenak eta nahi nahi ez zutenak ere. Jabetza horizonta-

laren legearen baitan sartzen da, eta ados jartzeko portzentaje bat behar da. Eta baita ezinegonarekin, burokraziaren atzerape-nagatik.

8 Muntaiak nolako izan zen?

Arbizuko instalatzaile batekin harremanetan jarri ginen eta berak aurrekontua, obra proiektua eta dokumentu guztiak aurkeztu zituen. Instalazioa hiru astetan egin zuen.

9 Baimenik behar da?

Udalean obra lizentzia eskatu behar da. Teiltatuak jasan dezakeen pisua aurkeztu behar da, baita materialen eta abarren memoria bat. Instalatzailea ingeniaria da eta dena prestatu zuen.

10 Matxurak badaude?

Dena monitorizatuta dago. Aplikazio bat dugu eta bertan dena agertzen da: eguzkia noiz ateratzen den, erroreak... Lehenengo egunetan jolas bat zen.

11 Jendea animatzen duzu?

Dudarik gabe, bai. Pentsatzeko eta egiteko modu bat da. Duela lau hilabete bukatu genuen paper kontuekin, eta orain denbora pasa dela, berriz hasiko nintzateke. Eraikinak babes sare bat du ere, hezetasun arazoak zituelako. Edozein erakinetan jar daitezke eguzki plakak, eta gainera horrelako proiektu batean parte hartzeko eraikinek ez dute zertan ondoan egon. Kilometro bateko inguruan egon daitezke.

Eman HEGALAK irudimenari

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

gk GISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA **fo**

619 821 436 | Foru plaza, 23-1. Altasau
 info@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus